

2013/07/22

ZEINU HIZKUNTZAK ETA GIPUZKOAKO GORREN KOMUNITATEA



argazkilaria: midnightglory

Zeinu hizkuntzei buruzko datu orokor batzuk eta Gipuzkoako gorren komunitatearen diagnostiko bat | Miren Lazkano

AURKIBIDEA

AURKIBIDEA	2
1. LABURPENA	3
2. SARRERA	4
3. METODOLOGIA	5
4. DATU HISTORIKOAK	7
4.1. XVII. mendeko Espainiako Eskola.....	7
4.2. Charles-Michel de l'Épée-ren eredu berria.....	8
4.3. 1880ko Milango kongresua.....	11
4.4. William Stokoe ikerlariaren lana.....	12
5. AURREIRITZIAK DEUSEZTATZEN	15
5.1. Zeinuen hizkuntzak ez dira mimika.....	15
5.2. Zeinuen hizkuntza ez da unibertsala	18
5.3. Zeinuen hizkuntzak ez dira zeinuetara ekarritako ahozko hizkuntzak	21
6. GORRERIARI ETA GORREN KOMUNITATEEI BURUZKO DATU OROKOR BATZUK	25
6.1. Gor nortasuna	25
6.2. Gorren komunitatea	26
6.3. Zeinu hizkuntzaren transmisio ahula.....	29
6.4. Ahozko zein zeinu bidezko hizkuntzez jabetzeko gaitasuna.....	30
7. GIPUZKOAKO GORREN KOMUNITATEA	33
7.1. Gipuzkoako gorrak zenbakitan	33
7.2. Ume gorrentzako hezkuntza eskaintza.....	35
7.3. Zeinu hizkuntza hezkuntza sisteman	42
7.4. Zeinu hizkuntza eta euskara	45
7.5. Entzuleak zeinuen hizkuntzak ikasten	47
7.6. Gurasoen eta gorren elkartek.....	48
7.7. Interpretaritza zerbitzua	50
7.8. Zeinu hizkuntza zerbitzu publikoetan	52
7.9. Lan arloa.....	54
7.10. Zeinu hizkuntzen lege babesa	56
7.11. Aisialdia	57
7.12. Teknologia berriak	59
7.13. Hedabideak	60
7.14. AMIA matrizea	62
8. ZEINU HIZKUNTZAK ETA AHOZKO HIZKUNTZA GUTXITUAK	67
8.1. Berdintasunak	67
8.2. Desberdintasunak	72
9. BIBLIOGRAFIA	76
10. ERANSKINAK	79
10.1. Galdetegia (elkarrizketatua: Iker Amondarain)	79
10.2. Galdetegia (elkarrizketatua: Klara Begiristain)	84
10.3. Galdetegia (elkarrizketatua: Iñaki Madinabeitia)	87
10.1. Galdetegia (elkarrizketatua: Cristina Díaz)	90

1. LABURPENA

Bi zati nagusitan banatzen da azterketa lan hau. Lehenengo zatian, zeinu hizkuntzei eta gorren komunitateei buruzko informazioa ematen da. Batetik, zeinu hizkuntzek XVI. mendetik gaurdaino izandako bilakaera azaltzen da labur-labur, gero, zeinu hizkuntzei buruz zabaldurik dauden hainbat aurreiritzi indargabetzeko ahalegina egiten da, eta azkenik, gorrerari eta gorren komunitateei buruzko jakingai orokor batzuk azaltzen dira.

Bigarren zatian, Gipuzkoako gorren komunitatea aztertzen da diagnostiko bat egiteko asmoarekin. Hainbat arlo jorratzen dira, besteak beste, hezkuntza sistema, lan arloa, hedabideak, aisialdi aukerak eta interpretaritza zerbitzua. Horren ondoren, egoeraren AMIA matrize bat osatu dut Gipuzkoako gorrek¹ bizi duten egoera soziolingustikoaren ikuspegi orokor bat emate aldera. Azkenik, zeinu hizkuntzen eta ahozko hizkuntza gutxituen arteko azterketa konparatibo bat egin dut, eta bien arteko desberdintasunak eta berdintasunak deskribatzen saiatu naiz.

¹ “Gor” edo “pertsona gor” terminoak erabiliko ditut txosten honetan entzumen gabeziaren bat duten pertsonak izendatzeko. Zenbaitek “entzumen galera duten pertsonak” edo antzekoak erabiltzen dituzte, “gorra” erabili beharrean, izan ere, batzuen ustez hitz horrek konnotazio negatiboak ditu. Hala ere, beste askoren ustetan, entzuleen aurreiritziak besterik ez dira horiek, eta gor askok identitate zeinuzat hartzen dute “gor” terminoa.

2. SARRERA

Hasiera batean, azterketa lan honen helburua Euskal Herriko gorren komunitateak bizi duen egoera soziolinguistikoa aztertu eta deskribatzea zen. Euskal Herri osoko datuak emanaz, lurraldeen arteko ezberdintasunak deskribatzea zen nire lehenengo asmoa. Dena den, azkar konturatu nintzen ez nuela ez nahikoa denbora ez nahikoa baliabide horrelako bolumeneko lan bat egiteko. Horrenbestez, nire azterlana Gipuzkoako lurralde historikora mugatzea erabaki nuen, azken batean ni gipuzkoarra naizelako eta informazioa eskuratzeko garaian aukera gehiago izango nituelako.

Gipuzkoako gorren komunitatearen egoera soziolinguistikoa hartu nuen, beraz, ikerketa ardatz gisa. Garrantzitsua iruditzen zitzaidan, baina, Gipuzkoan zentratu aurretik, gorren komunitateei eta zeinu hizkuntzei buruzko azalpen orokor batzuk ematea. Horren ondorioz, lan honek bi atal ditu, bata, orokorra, zeinu hizkuntzei eta gorren komunitateei buruzkoa, eta bestea, zehatzagoa, Gipuzkoako gorren komunitateari buruzkoa.

Entzulez osatutako gizartean zeinu hizkuntzak eta gorren komunitateak ikusezinak dira oro har. Gorrak gutxi izaten dira eta horregatik entzule gehienak kontziente ere ez gara izaten komunitate hori hor dagoela. Ezjakintasuna handia da eta aurreiritzi asko ditugu zeinu hizkuntzen eta gorren inguruan.

Nire burua ere aurreiritzi horiez betea zegoen, unibertsitateko lehen mailan hizkuntzalaritzako ikasgaietan gaia landu genuen arte, zeharka bada ere. Ikuspegi berri batez hasi nintzen ikusten zeinu hizkuntzak eta ordutik nolabaiteko jakin-mina izan dut gai honekiko. Hiznet-eko proiekturako gaia aukeratzeko unea iristean, horri heltzea erabaki nuen.

3. METODOLOGIA

Lan hau osatzeko hiru iturri nagusitatik jaso dut informazioa. Batetik, zeinu hizkuntzei buruzko historia jasotzeko, horiei buruz entzuleek dituzten aurreiritziak lantzeko eta gorrerari zein gorren komunitateari buruzko informazio orokorra emateko, gaiari buruzko bibliografia bildu, irakurri eta intereseko datuekin testua osatu dut.

Aipatzekoa da, bibliografian ikusten den moduan, Internet-eko baliabideak nahiko erabili ditudala txosteneko hainbat atal osatzeko garaian, izan ere, ohiko bibliografia iturrietan kasu askotan ez dut izan nahi nuen informazio lortzeko modurik.

Bestetik, Gipuzkoako gorren komunitateari buruzko datuak jasotzeko, komunitatearen inguruko hainbat elkartetara jo dut, esaterako, Aransgi elkartera², Pertsona Gorren Elkarteen Euskal Federaziora (Euskal Gorrak), Gipuzkoako Pertsona Gorren Elkartera (GPGE) eta Botikazar instituturara³. Elkarte horiengandik informazio ugari jaso dut: hezkuntza sisteman nolako eskaintza dagoen gorrentzat, interpretaritza zerbitzuak nola funtzionatzen duen, aisialdirako zer aukera dituzten gorrek etab. Dena den, esan beharra dago informazio kopuru handiena Aransgi elkartetik jaso dudala eta haiekin izan dudala hartu-eman estuena.

Azkenik, 6. atala eta 7.a osatzeko, gorren komunitatearen ikuspegi subjektiboagoa ere jaso nahi izan dut: haien iritzia jaso, ardurak azaldu, pentsaera agertu... Horretarako, hainbat elkarrizketa egin ditut. Elkarrizketa horiek lotzen Aransgi-ko Bergarako egoitzako zuzendariak, Iñaki Madinabeitiak, lagundu dit, berak eman dit-eta interesatzen zitzaizkidan profila betetzen zuten pertsonekin harremanetan jartzeko modua. Eskerrak eman beharrean nago laguntzagatik.

Elkarrizketen bidez, ikuspegi orokor bat jaso nahi izan dut, eta lau profil definitu nituen horretarako: gorren gurasoen elkarteko langile bat, pertsona gor bat, zeinu

² Aransgi elkarteak Gipuzkoako pertsona gorren familien elkarte da. Entzumen urritasuna zuten umeen guraso batzuek 1967an sortu zuten, eta egun hainbat alorretan ematen dio laguntza gorren kolektiboari: alderdi mediko eta psikologikoan, hezkuntza alorrean, lan arloan, eta gizarte eta familia alorrean. Informazio gehiagorako: <http://www.aransgi.org/eu/>

³ Bilbon, Deustun, dago Botikazar institutua eta gaur egun batxilergoak eta goi-mailako zikloek osatzen dute ikastetxeko eskaintza. Informazio gehiagorako: <http://www.botikazar.net/>

hizkuntzako interprete bat eta ume gor baten gurasoak. Hortxe elkarrizketatuen zerrenda:

- Iñaki Madinabeitia: Aransgi elkarteko Bergarako egoitzako zuzendaria
- Klara Begiristain: pertsona gorra eta aldi berean ume gor baten ama
- Iker Amondarain: zeinu hizkuntzako interpretea
- Cristina Díaz: 14 ureko ume gor baten ama

Elkarrizketa guztiak aurrez aurre egin ditut Klararena izan ezik. Komunikazio arazoak saihesteko-edo idatziz egitea erabaki genuen, eta esan beharra daukat emaitzak ez direla nahi bezain onak izan. Kasu askotan erantzunak laburrak izan dira, eta nire ustez, aurrez aurre interprete batekin egin izan bagenu, emaitzak hobeak izango lirateke.

Bestalde, azaldu beharrekoa da Cristina Díaz-ekin egindako elkarrizketak ez duela agian erakusten ume gorrek dituzten guraso guztien ikuspegia. Geroago azalduko dudan bezala, ume gorren guraso batzuek ez dute euren seme-alaben ezgaitasuna onartzen eta euren helburua izaten da umeak entzule bihurtzea. Horrelako pentsaera duten gurasoak ez dira prest egoten mota honetako elkarrizketak egiteko. Cristina Díaz-en aipamenak jasotzean kontuan hartu beharrekoa da adierazpen horiek ez dutela ordezkatzen ume gorren gurasoen zati baten ikuspegia.

Gipuzkoako gorren komunitatearen azterketa soziolinguistiko hori osatu ondoren, egoeraren AMIA matrize bat osatu dut Gipuzkoako gorrek eta zeinu hizkuntzek bizi duten errealitatearen indarguneak, ahulguneak, aukerak eta mehatxuak definituz.

Azkenik, aurretik jasotako informazio osoa kontuan hartuta, ahozko hizkuntza gutxituen eta zeinu hizkuntzen arteko azterketa konparatibo bat egin dut, zehaztuz zer antzekotasun zeta zer desberdintasun dituzten.

4. DATU HISTORIKOAK

Ahozko hizkuntza askok kode idatziak dituzte eta hizkuntza horien datu historikoak bilatzeko garaian testu idatzietara jotzen dugu. Zeinu hizkuntzen kasuan ez daukagu aukera hori, izan ere, zeinuen hizkuntzak ez dira idazten, ez dute kode idatzirik. Zeinu hizkuntzen datu historikoei begiratzen badiegu, erreferentzia zaharrenak hezkuntzaren alorrean aurkituko ditugu, gorrei ahozko hizkuntza erakusteko erabilitako zeinuen erreferentziak dira, hain zuzen.

Datozen lerrootan, XVI. mendetik gaurdaino zeinuen hizkuntzei buruz dauden erreferentzia nagusien laburpen bat egingo dut. XX. mendeko bigarren erdira arte datu horiek hezkuntzaren alorrekoak dira gehienbat. 1960. urteak aldaketa baten hasiera ekarri zuen; urte horretan argitaratu zuen William C. Stokoe hizkuntzalariak *Sign Language Structure* lana. Gorren komunitateari eta zeinu hizkuntzei buruzko ikuspegi aldaketako prozesuaren abiapuntu izan zen lan hori.

Zeinuen hizkuntzak denbora luzez bazterturik egon dira, entzuleek zein gorrek gutxietsi izan dituzte eta ez dituzte benetako hizkuntzatzat jo duela hamarkada gutxi batzuk arte. Historia hori ezagutzea garrantzitsua da gorren eta entzuleen komunitateetako egungo errealitatea ulertzeko.

4.1. XVII. MENDEKO ESPAINIAKO ESKOLA

Zeinuen hizkuntzei buruzko daturik ez dago apenas XVIII. mendea baino lehenago. Aipatu beharreko lehen pertsona Pedro Ponce fraidea da. Leonen jaiotako fraide beneditar hau munduan izan den gorren lehen irakasletzat hartzen da. XVI. mende hasieran jaio zen, eta pedagogo eta logopeda zen. Bizitzako zati handi bat Oñako San Salvador monasterioan egin zuen eta bertan zenbait ume gor hezteko ardura izan zuen. 1545 inguruan hasi zen ume gorrekin lanean eta Erreinuko familia boteretsuen

seme-alabei ematen zizkien eskolak. Ikasleak ez ziren taldetan biltzen, eskolak bakarkakoak izaten ziren.

Ez dakigu zer metodo erabiltzen zuen gorrei irakasteko, ez baita hura deskribatzen duen dokumenturik aurkitu. Ambrosio de Morales historialariak idatzitakoaren arabera, badirudi idazmena eta zeinuak erabiltzen zituela ikasle gorrei hitz egiten irakasteko (Rodríguez, 1992:52).

Pedro Ponce fraidearen lana Ramirez de Carrión-ek (1579-1652) eta Juan Pablo Bonet-ek (1579-1633) jarraitu zuten. Carrión garaiko nobleziako hainbat gorren irakasle izan zen; Bonet-ek, ostera, gorrei hitz egiten irakasteari buruzko lehen lana idatzi zuen 1620an: *Reduction de las letras y arte para enseñar a ablar a los mudos*. Lan horrekin, Ponce-k eta Carrión-ek erabilitako metodoa dibulgatu zuen Bonet-ek eta Espainiako mugetatik kanpo ere oihartzuna izan zuen itxuraz. Izan ere, Europako beste herrialde batzuetako hainbat ikerlarik⁴ idatzitako lanetan badirudi lan horren eragina nahiko argia dela (Rodríguez, 1992:64). Ondorioztatzen dut, beraz, gorren hezkuntzaren alorrean Espainia erreferentzia zela garai hartan Europan.

Ikusi dugunez, Ponce-k eta Carrión-ek erabiltzen zuten metodoan zeiniek bazuten lekua gorren hezkuntzan, baina zeinuen funtzioa gorrei ahozko hizkuntza irakastea zen, batik bat hitz egiten irakastea.

4.2. CHARLES-MICHEL DE L'ÉPÉE-REN EREDU BERRIA|ERROR!

MARCADOR NO DEFINIDO.

Charles-Michel de l'Épée apaizarekin (1712-1789) beste garai bat hasi zen gorren hezkuntzaren alorrean. 1771n logopeda eta pedagogo frantsesak gorrentzako lehen doako eskola sortu zuen. Bere eskutik hasi zen gauzatzen gorrentzako hezkuntza kolektiboa, izan ere, arestian azaldu bezala, nobleen seme-alabek jasotzen zuten bakarkako hezkuntza zen ordura arte ezagutzen zen gorrentzako hezkuntza eredu

⁴ Besteak beste, Jhon Wallis-en, J. Conrad Amman-en eta Daniel Georg Morhof-en lanetan (Rodríguez, 1992:63-64).

bakarra (Rodríguez, 1992:66). María Ángeles Rodríguez-ek *Lengua de Signos* (1992) lanean azaltzen duen bezala, L'Épée-ren hezkuntza eredua taldekakoa izanik, gorrek harremana zuten elkarren artean, eta horrek ekarri zuen zeinuen hizkuntza nabarmen garatzea (Rodríguez, 1992:69).

L'Épée izan zen gorren zeinuak hizkuntza naturala zirela esan zuen lehena, hala ere, ez zen erabat jabetu zeinuen hizkuntzek dituzten baliabideez (Rodríguez, 1992:67-68).

Hizkuntza naturalak aipatuta, kontzeptu horren inguruan hiru definizio hauek ekarri nahi nituzke hona⁵:

Cualquier lengua humana como el inglés o japonés, en contraposición con los lenguajes de ordenador, la notación musical, las fórmulas de la lógica, etc. (Pinker, 2001).

En oposición a la lengua artificial, sistema de comunicación históricamente dado y transmitido de generación en generación como vehículo principal de interacción entre individuos de una comunidad (Anaya, 1986).

Designa una variedad lingüística o forma de lenguaje humano con fines comunicativos que está dotado de una sintaxis y que obedece supuestamente a los principios de economía y optimidad. Las lenguas naturales usualmente están basadas en símbolos sonoros pero también pueden existir lenguas basadas en signos. (Wikipedia, 2013)

L'Épée-k egindako lanera itzuliz, ume gorrek erabiltzen zituzten zeinuak ikasi zituen eta beste batzuk, zeinu metodikoak, gehitu zituen ikasleek frantsesa idazten eta irakurtzen ikas zezaten. Zeinu metodiko horiek L'Épée-k asmatu zituen, artifizialak ziren, eta izenordainak, aditzen denborak, moduak eta abar adierazteko sortu zituen. Azken batean, kode artifizial bat sortu zuen ikasleek frantsesa ikas zezaten (Rodríguez, 1992:68-69).

⁵ Definizioak desberdinak dira, eta bakoitzak arlo desberdinetan jartzen du arreta: lehenengo eta bigarren definizioek gizakiak modu artifizialean sortutako beste hizkuntza batzuekin kontrajartzen dituzte hizkuntza naturalak; bigarren eta hirugarren definizioek komunikazioari garrantzia ematen diote; Hirurek gizakiarekin lotzen dute hizkuntza naturala. Bigarren definizioan transmisioan jartzen da arreta; hirugarrenean, aldiz, hizkuntzen ezaugarri orokor batzuk definitzen dira. Definizio horietan arlo desberdinak agertzen badira ere, esan beharra dago zeinu hizkuntzek guzti-guztiak betetzen dituztela, eta beraz, hizkuntza naturalak direla.

Gorren hezkuntza munduan zehar zabaldu zen 1750 eta 1850 artean, herrialde kolonialistek kolonietan eskola berriak zabaldu zituzten-eta: Ingalaterrako elizaren eskutik, esaterako, eskolak zabaldu ziren Irlandan, Australian eta Zeelanda Berrian. Gorren hezkuntza arrazoi humanitarioengatik eta misiolarien bidez zabaldu zen munduan zehar, eta horrexegatik herrialde desberdinetako gorrek zeinuen hizkuntza berbera daukate zenbait kasutan (Padden, 2001:53). Hori da, adibidez, Zeelanda Berriko eta Australiako zeinuen hizkuntzen kasua. Herrialde horietan erabiltzen duten zeinuen hizkuntza eta Britainia Handikoa oso antzekoak dira, izan ere, XIX. mendean zehar Britainia Handiko zeinu hizkuntza Australian eta Zeelanda Berrian zabaldu zen, herrialde horietan britainiarrek zabaldutako gorrentzako eskolen bidez⁶.

Estatu Batuetan dago egun gorren komunitaterik indartsuena, eta komunitate horrek izandako bilakaeraren historian, ezin aipatu gabe utzi Thomas Hopkins Gallaudet, Connecticut-eko abade bat. 1815ean Europara etorri zen Gallaudet gorrek jasotzen zuten hezkuntza ezagutzeko asmoz. Edinburgon eta Londresen egon ondoren, Parisera heldu zen bertako eskola bat ezagutzeko. Izan ere, Londresen zela, Roch-Ambroise Cucurron Sicard-en hitzaldi batean egon zen, eta Sicard-ek Parisko bere eskola ezagutzera gonbidatu zuen. Eskola horretan L'Épée-ren metodologia erabiltzen zuten. Bost hilabete egin zituen Gallaudet-ek Parisen eta ondoren Estatu Batuetara itzuli zen institutuko irakasle onenatariko batekin, Laurent Clerc-ekin, batera. 1817an gorren eskola bat zabaldu zuten Hatforden (Connecticut), egun *American School for Deaf* izena duena. Hatford-eko eskolan metodologia frantsesean oinarritutako hezkuntza eredua jarri zuten martxan. Clerc-en etorrerarekin, Frantziako zeinuen hizkuntza (LSF) Ipar Amerikara heldu zen. Behean María Ángeles Rodríguezek Clerc-en eta eskola frantsesak izandako eraginari buruzko aipu bat:

“Sería absurdo pensar que los sordos americanos no tenían un lenguaje de signos antes de la llegada de Laurent Clerc, pero no existía un grupo de sordos tan cohesionado como el que se había formado en París en torno al Instituto gracias a la educación iniciada por L'Épée y por sus continuadores”. (Rodríguez, 1992:79).

Clerc Ipar Amerikara heltzearekin bat, bultzada handia eman zitzaion gorren hezkuntzari, hainbat eskola sortu baitziren, besteak beste, New York-en, Pensilvania-n,

⁶ Iturria: <http://en.wikipedia.org/wiki/Auslan> eta http://en.wikipedia.org/wiki/New_Zealand_Sign_Language

Ohio-n eta Kentucky-n. LSFa AEBetako garaiko zeinuen hizkuntza lokalekin nahastu zen eta poliki-poliki egun ezagutzen dugun Amerikako Zeinu Hizkuntza (ASL) sortzen joan zen. ASLak eta LSFak antzekotasun handiak dituzte hiztegi aldetik, hala ere, bi hizkuntza desberdin dira eta horien erabiltzaileek ezin dute elkar ulertu.

4.3. 1880ko MILANGO KONGRESUA|ERROR! MARCADOR NO

DEFINIDO.

Beraz, XIX. mende hasieran, zeinuek bazuten euren lekua gorren hezkuntzan, baina mendea aurrera joan ahal egoera hori aldatu egin zen. XIX. mendeko bigarren erdian, metodo oralistak indarra hartzen hasi ziren. Aurrerapen teknikoak eta klinikoak izan ziren garai hartan, eta 60ko hamarkadan irekitako zenbait eskolatan, zeinuen hizkuntzaren aurkako jarrerak zituzten, izan ere, eskola haietan ez baitzuten egoki jotzen zeinuen hizkuntza erabiltzea gorren hezkuntzarako (Moreno in Lara; Martínez; Vega, 2007:141).

Zeinuen hizkuntzen historian, 1881.a urte garrantzitsua da. Data horretan, Gorren Irakasleen Nazioarteko Kongresua egin zen Milanen. Gorren hezkuntzan zeinuen hizkuntza desagerraraztearen alde agertu zen kongresua eta hezkuntza erabat oralista izatea proposatu zuten. Kongresu hartara joandako irakasle gehienak entzuleak ziren, eta esan bezala eredu oralista aldarrikatu zuten, pentsatzen baitzuten gorrak hitz egiteko gai zirela. XIX. mende amaieran uniformetasuna aldarrikatzen zen, baita kulturaren eta hezkuntzaren alorrean ere, eta horrenbestez, gorrak entzuleen gizartean integratzea zen hezkuntzaren zeregina (Rodríguez, 1992:90).

Kongresuko ebazpenetan jasotakoaren arabera, hitzek zeinuek baino askoz ere ahalmen handiago zuten gorrak gizarteratzeko, bai eta ahozko hizkuntza ikas zezaten ere; horrez gainera, hitzak eta zeinuak aldi berean erabiltzeak kaltetu egiten zituen, Kongresuaren ustetan, gorren hitz egiteko gaitasuna, ezpainen irakurketarako ahalmena eta ideien zehaztasuna. Beraz, metodo orala lehenetsi behar zen, bertan ebatzitakoaren arabera.

Gaur egun ere badira itxuraz metodo oralak gomendatzen dituzten profesionalak, hori erakusten dute behintzat beheko aipuek:

“...prejuicio que aún perdura, aunque por supuesto en menor grado, en nuestra sociedad, concretamente en el ámbito médico y educativo” (Lara; Martínez; Vega, 2007:141).

“Es sorprendente que todavía hoy persistan el enfrentamiento entre ‘oralismo’ y ‘manualismo’ y sus personales combinaciones en los métodos de educación del sordo” (Rodríguez, 1992:93).

Gai horri buruz sakonago jardungo dut 5. atalean, Gipuzkoako gorren komunitateari buruzkoan.

Zeinuen hizkuntzak bazterturik egon ziren XIX. mende amaieratik XX. mendeko bigarren erdira arte. Gorren elkartetan erabiltzen ziren, bai eta eskoletan ere baina beti gelaz kanpo. Horrelako egoera batek, agerikoa denez, edozein hizkuntzaren garapen normalizatuan eragin izugarria du (Lara; Martínez; Vega, 2007:141).

4.4. WILLIAM STOKOE IKERLARIAREN LANAJ ERROR! MARCADOR NO DEFINIDO.

Gorrentzako *Gallaudet College* unibertsitatea sortu zen Washington-en 1864an. Gorrentzako unibertsitate bakarra da munduan, eta egun 2000 ikasle inguru matrikulatzen dira urtean. Hasiera batean, entzuleek zuzentzen zuten erakundea, baina 1988an, ikasle gorrek antolatutako kale protesta ugariren ondorioz, lehen errektore gorra izatea lortu zuten. Errektore berriarekin batera, administrazio erreforma bat gauzatu zuten, eta horren bidez, unibertsitateko zuzendaritza karguen % 51tan baino gehiagotan gorrak daude orduetik. Horrez gainera, askotariko aldaketa administratibo, sozial, psikologiko eta hezkuntza arlokoak gauzatzen hasi ziren (Sacks, 2001:203). Gallaudet Unibertsitatea sinbolo bat da munduko gor guztientzat zeinu hizkuntzen eta gorren kulturen aldeko borrokaren eredu delako⁷.

⁷ Iturria: Universidad Gallaudet, http://es.wikipedia.org/wiki/Universidad_Gallaudet

Unibertsitate horretako irakasle bat izan zen, hain zuzen, oralismoan oinarritutako hezkuntza eredu batetik zeinuak berreskuratzeko prozesuan lehen harria jarri zuena. Unibertsitateko Hizkuntzalaritza Saileko William Stokoe hizkuntzalariak honako artikulu hau argitaratu zuen 1960an: *Sing Language Structure: An outline o the visual communication system of the American deaf*. Artikulu horretan, baieztatzen zuen zeinuen hizkuntzak hizkuntza naturalak direla eta argumentuak ematen zituen hori frogatzeko.

Stokoe-k hasitako bidetik, 70eko hamarkadan San Diegoko (California) unibertsitatean, Ursulla Bellugi eta Edward Klima senar-emazteen ekimenez, eta Thomas Sebeck-en laguntzaz, *Sign Language Studies* aldizkaria argitaratzen hasi ziren, eta horrekin batera, ASLaren eta ondoren beste herrialde batzuetako zeinuen hizkuntzen inguruko ikerketak ugaltzen hasi ziren, adibidez, Suediako, Frantziako eta Erresuma Handiko zeinu hizkuntzei buruzko ikerketak (Herrero in Lara, Martínez, Vega, 2007:142).

Egindako ikerketek erakutsi zuten zeinuen hizkuntzak hizkuntza osoak direla eta ahozko hizkuntzen ezaugarri bereko gramatikak dituztela. Lan horien emaitzak gizartean zabaldu eta aitortzearen eraginez, besteak beste, gorren komunitatean aldaketa kultural nabarmenak gertatu ziren. Zeinuen hizkuntzekiko ikuspegi aldaketa gauzatzen hasi zen poliki-poliki eta ama hizkuntza gisa, hizkuntza natural gisa, gorren komunitatearen hizkuntza gisa ikusten hasi ziren. Horren ondorioz, gorren komunitatea zeinuen hizkuntzen erabilera bultzatzearen alde egiten hasi zen⁸.

Giro horretan, 1988an Europako Parlamentuak zeinuen hizkuntzei buruzko ebazpen bat onartu zuen, eta bertan esaten zen gorrek eskubidea zutela zeinuen hizkuntzak beren lehentasunezko hizkuntza gisa erabiltzeko (Lara; Martínez; Vega, 2007:142).

Espanian 90eko hamarkadaren hasieran aldaketa sozial nabarmenak izan ziren, besteak beste, zeinu hizkuntzako irakasle gorrentzako prestakuntza ikastaroak hasi ziren, LSEari buruzko lehen ikerketak argitaratu ziren, zeinu hizkuntza interpetaritzako goi mailako titulua onartu zen eta gorrentzako hezkuntza elebidun-bikulturala garatzen hasi ziren.

⁸ Iturria: Edward Klima, http://en.wikipedia.org/wiki/Edward_Klima

Espainiako zeinuen hizkuntzak⁹ legez hizkuntza ofizial gisa onartuak izatea 2007ko ekainean lortu zen, eta horrenbestez, hura ikasteko, ezagutzeko eta erabiltzeko eskubidea arautu zen eta gor eta gor-itsuen ahozko komunikaziorako laguntza bitartekoak bermatzeko bideak ezarri ziren (Lara; Martínez; Vega, 2007:145). Dena den, eta legea aurrerapauso garrantzitsua izan bazen ere, egun gorren komunitatearen hizkuntza eskubideak betetzetik urrun gaude. 5. atalean, aztertuko dut Gipuzkoako gorren komunitateak zer egoera bizi duen.

⁹ Espainian bi zeinu hizkuntza daude: Espainiako zeinu hizkuntza eta Kataluniako zeinu hizkuntzak

5. AURREIRITZIAK DEUSEZTATZEN

Gorrek entzuleez inguraturik bizi dira. Komunitate txikia osatzen dute –mila jaioberritik bat gor sakona da–, eta gainera, sakabanaturik bizi dira. Arrazoi horiek eta beste batzuk tartean direla, gorren komunitatea ikusezina eta arrotza da oro har gizartearentzat. Hurbileko kasuren bat izan duten pertsonen salbu, inor gutxik du komunitate honi eta beren hizkuntzari buruzko ezagutzarik. Ezjakintasun horren eraginez, zeinu hizkuntzei buruzko hainbat aurreiritzi nahiko zabaldurik daude egun gizartean. Atal honetan aurreiritzi horiek azaldu eta indargabetzen saiatuko naiz.

5.1. ZEINUEN HIZKUNTZAK EZ DIRA MIMIKA ¡ERROR! MARCADOR NO DEFINIDO.

Munduko leku desberdinetako gorrek erabiltzen dituzten zeinuen hizkuntzak ez dira mimika. Izan ere, mimika hutsa balira, oso erraza izango litzateke entzuleontzat haiek ulertzea, eta ez da hala izaten (Sotillo, 1997:92). Inoiz gor talde bat “hitz egiten” ikusi eta arreta jarri duen edonork daki zeinuen hizkuntza ezagutzen ez dugun entzuleok ez garela gai gorrek elkarri “esaten” dizkietenak ulertzeko. Haien hizkuntza ulertzeko interpreteak behar ditugu, eta beraz, ondorioztatzen dugu gorrek erabiltzen dutena ez dela mimika edo pantomima.

María Sotillo-k idatzitako *Sistemas Alternativos de Comunicación* (1997) lanean zeinuen sailkapen interesgarri bat ageri da, zeinuen izaera ikonikoa oinarri hartzen duena. Azaltzen duenaren arabera, egia da gorrek erabiltzen dituzten zeinuetako batzuk ikonikoak direla, hau da, hizkuntza ezagutu gabe ulertzeko modukoak direla (esaterako, “edan” eta “lo egin”).



“edan” (iturria: www.sematos.eu)



“lo egin” (iturria: www.sematos.eu)

Beste zeinu batzuekin, aldiz, zeinuaren eta zeinuak adierazten duen horrekin lotura ikonikoa egiten dugu behin azaldu digutenean zeinuaren esanahia (esaterako, “dortoka” eta “zerbitzaria”).




“dortoka” (iturria: www.sematos.eu)



“zerbitzaria” (iturria: www.sematos.eu)

Dortoka adierazteko, eskuak luze bata bestearen gainean jartzen dira, dortokaren gorputza irudikatuz, eta atzamar potoloak atzerantz eta aurrerantz mugitzen dira, dortokaren hankak balira bezala. Zerbitzariaren zeinuan, berriz, besoa irudian bezala jartzen da eta zirkulu horizontalak egiten dira airean, zerbitzariak eramaten duten erretilua irudikatuz. Zeinuen esanahia azaldu ondoren, erraza da lotura ikonikoa egitea, baina ez azalpen hori jaso baino lehen.

Beste zeinu batzuk, ordea, erabat arbitrarioak dira, hau da, zeinuak eta zeinuak adierazten duen horrek ez dute inolako harreman ikonikorik (esaterako, “ostirala” eta “beltza”).



“ostirala” (iturria: www.sematos.eu)



“beltza” (iturria: www.sematos.eu)

Aipatu beharra dago, bestalde, zeinu ikoniko asko tokian tokiko kulturarekin estu loturik daudela, adibidez, “jan” esateko mendebaldeko komunitateetan eta ekialdekoetan erabiltzen diren zeinuak desberdinak dira, mendebaldean ez bezala, ekialdean palilloekin jan ohi baitute (Sotillo, 1993:97).



“jan” (iturria: www.sematos.eu)



“jan” (iturria: <http://www.spreadthesign.com>)

Beraz, egia da zeinu multzo bat ikonikoa dela, baina hori horrela izanda ere, ezin dugu esan zeinu hizkuntza ikonikoak direnik, izan ere, erabat arbitrarioak diren zeinuen ehuneko askoz handiagoa da-eta (Klima; Bellugi in Sotillo, 1993:96).

5.2. ZEINUEN HIZKUNTZA EZ DA UNIBERTSALA | ERROR! MARCADOR NO DEFINIDO.

Gorrek in harremanik izan ez duten entzule askok uste dute zeinuen hizkuntza unibertsala dela, gor guztiek hizkuntza bera erabiltzen dutela, eta horren ondorioz, munduko bazter guztietako gorrek arazorik gabe ulertzen dutela elkar.

Muga geografikoek, politikoen, sozialek eta abarrek pertsonak banantzen dituzte, muga horiek giza talde desberdinak sortzea ekartzen dute, pertsonen harreman gehiago izaten dituztelako beren eremuko pertsonenkin gainerakoekin baino, eta ahozko hizkuntzekin gertatzen den bezalaxe, banaketa horrek zeinu hizkuntza desberdinak sortzeko garaian eragina izan du. Gorren komunitate bakoitzak bere hizkuntza erabiltzen du eta zeinuen hizkuntza baten barruan ere dialektoak izaten dituzte.

Gorren nazioarteko biltzarretan interpreteak behar izaten dituzte zeinuen hizkuntza desberdinak erabiltzen dituzten pertsonen artean komunikatu ahal izateko.

Nazioartean komunikatzeko hizkuntza bakarra izatearen onurez oharturik, entzuleek esperantoa sortu zuten bezala, gorrek gestunoa sortu zuten. Biek ala biek izandako garapena nahiko murrizta izan da, azken batean, modu artifizialean sortutako hizkuntzak dira, inork modu naturalean ikasi ez dituenak.

Gorrek nazioarteko komunikaziorako zeinu sistema osagarri bat erabiltzen zuten XIX. mende hasieratik. 1951n, Gorren Mundu Kongresuko lehen bileran, nazioarteko zeinu sistema estandarizatzeko beharraz eztabaidatu zuten. 1973an hiztegi estandar bat argitaratu zuten 1500 zeinu biltzen zituena. "Gestuno" izena eman zioten sistema berri horri. Hurrengo urteetan nahiko aldatu zen sistema: zeinu ikoniko eta mailegu gehiago txertatu zituzten eta gramatika kode batzuk gehitu zizkieten¹⁰. Egun "gestuno" izena ez da oso erabilia eta "nazioarteko zeinu hizkuntza" da terminorik zabalduena.

¹⁰ Iturria: http://en.wikipedia.org/wiki/International_Sign

Nazioarteko zeinu hizkuntza Gorren Mundu Federaziokoan eta antolatzen dituzten kongresuetan erabiltzen da, bai eta Gorren Olinpiadetan eta Washington-go Deaf Way Konferentzia eta Jaialdian ere. Dena den, ekitaldi horietatik kanpora gutxi erabiltzen da¹¹. Nazioarteko zeinu hizkuntza ez da hizkuntza oso bat eta ez du zeinuen hizkuntza naturalen konplexutasunik. Pidgin¹² bat dela esan dezakegu, izan ere, lexiko mugatua du eta hitzun bakoitzak bere zeinuen hizkuntzaren gramatika erabiliz erabiltzen du¹³. Agerikoa da zeinu hizkuntza unibertsala balitz, gorrek ez luketela elkar ulertu ahal izateko hizkuntza artifizial bat asmatzen ibiltzeko beharrik.

Dena den, badirudi zeinu hizkuntza desberdinak erabiltzen dituzten gorren arteko komunikazioa hobea dela ahozko hizkuntza desberdinak erabiltzen dituzten entzuleen artekoa baino.

Ez dakigu hori zergatik gertatzen den. Baliteke hori gertatzea, batetik, gorrek zeinuak eta mimika gehiago erabiltzen dituztelako eta gaitasun hori entzule gehienek baino garatuago dutelako. Eta bestetik, haien buruak ulertarazten ohituago daudelako, entzuleen artean bizi direnez, komunikazioa ahalbidetzeko esfortzua egunerokoa zaielako eta entzuleek baino baliabide gehiago dituztelako helburu hori erdiesteko (Lemaster; Monaghan, 2006:142).

Horren adibide argi bat Euskal Herrian dugu. Espainia eta Frantziaren arteko mugak zeinuen hizkuntza desberdinak dituzten bi komunitateren arteko marra zedarritzen du. Pirinioez hegoaldekoek LSEa erabiltzen dute; Pirinioez iparraldekoek, aldiz, LSFa. Gorren dentsitatea txikia denez, gorren lagun sareek eremu geografiko handiak hartzen dituzte; entzuleen sareek hartzen dituztenak baino handiagoak izan ohi dira. Modu horretan, ohikoa izaten da Gipuzkoako gorrak, katalanekin, Madrilekoekin eta Valentziakoekin aisialdi planak egitea. Euskal Herriko gorren kasuan, muga hain gertu edukita, mugaz bestaldeko gorrekin ere harreman estua izaten dute, eta ez dute elkar

¹¹ Iturria: <http://www.lifepprint.com/asl101/pages-layout/gestuno.htm>

¹² Pidgin: Pidgin bat hizkuntza baten joera sintaktiko, fonetiko eta morfologikoak beste baten unitate lexikoekin elkartzen dituen hizkuntza da. Pidgina ez da talde etniko edo sozial jakin baten dialektoa; orohar, immigrante batek bere bizileku berrian erabiltzen duen hizkuntza aldaera da, edo lingustikoki oso desberdinak diren herrien artean harremanak sortzen diren guneetan erabiltzen den lingua franca bat. Pidginak kolonietan sortu ohi ziren, nazio menderatzailearen hizkuntzaren gramatika sinplifikatu bat beste hizkuntzen elementuekin nahasten zenean (Wikipedia, 2013).

¹³ Iturria: http://en.wikipedia.org/wiki/International_Sign

ulertzeko aparteko arazorik izaten, ez behintzat gaztelaniako hiztun batek eta frantses hiztun batek elkar ulertzeko izango luketen arazorik behintzat. Hizkuntza desberdinak eginda, askoz errazagoa da gorrentzat elkar ulertzea.

Esan bezala, gorren komunitateak eta entzuleen komunitateak elkar ulertzeko hizkuntza artifizialak sortu dituzte, eta era berean, bi komunitateek elkar ulertzeko lingua franca bana ere badute. Hizkuntza desberdinak erabiltzen dituzten pertsonak elkar ulertzeko aukeratutako hizkuntzari esaten zaio lingua franca. Hizkuntza bat eta ez besteak aukeratzearen arrazoiak politikoak, ekonomikoak eta abar izan ohi dira.


Normalean boterearen hegemonia duen gizartearen hizkuntza izan ohi da hizkuntza desberdinak erabiltzen dituzten patsonen arteko hartu-emanetan erabiltzen dena, nahiz eta tartean hizkuntza hegemoniko horren ama hiztunik ez izan. Erabilgarritasunaren izenean, hizkuntza hegemoniko hori ama hizkuntzat ez duten pertsonak bigarren hizkuntza moduan ikasten dute. Entzuleen kasuan ingelesak hartu du nazioarteko komunikaziorako leku hori egun: ingelesa da entzuleen artean lingua franka. Gorren artean, ASLa baliatzeko joera dago.

Hainbat arrazoi daude ASLa aukeratzeko gorren arteko komunikaziorako lingua franka gisa. Batetik, munduko gor komunitate handienaren hizkuntza da, eta bestetik, AEBetan egin zituzten zeinuen hizkuntzei eta gorren komunitateei buruzko lehen ikerketak eta haiek jarri zuten jakintza hori munduaren esku. Horrez gainera, Ipar Amerikako gorren komunitatearen eta beste herrialde askotako gorren komunitateen arteko harremana luzea eta sakona izan da, eta horrek eragin du gor askorentzat ASLa izatea bigarren hizkuntza. Eta azkenik, Estatu Batuek hezkuntza arloan eragin nabarmena izan dute euren mugez gaindi misiolariak eta irakasleak bidali izan baitituzte beste herrialde batzuetara, esaterako, Nigeriara eta Tailandiara (Lemaster; Monaghan, 2006:142).

5.3. ZEINUEN HIZKUNTZAK EZ DIRA ZEINUETARA EKARRITAKO AHOZKO HIZKUNTZAK; ERROR! MARCADOR NO DEFINIDO.

Entzule askok uste du zeinu hizkuntzak zeinu eta keinuetara ekarritako ahozko hizkuntzak direla, hau da, gorrek beren eremu geografikoko ahozko hizkuntza hartu eta zeinuetara moldatzen dutela. Zeinuen hizkuntzaren bat pixka bat ikasi duen edonork esan dezake hori ez dela horrela, izan ere, ahozko hizkuntza eta zeinuen bidezkoa bi sistema desberdin dira.

Zeinuen hizkuntzak zeinutara ekarritako ahozko hizkuntza balira, ahozko hizkuntza bakoitzak bere zeinuen hizkuntza izango luke, eta hori ez da hala. Ahozko hizkuntza berak hitz egiten dituzten herrialdeetako gorrek ez dute zertan zeinu hizkuntza bera edo antzekoa erabili. Esaterako, Estatu Batuetan eta Ingalaterran zeinu hizkuntza desberdinak erabiltzen dituzte. Bestalde, ahozko hizkuntza desberdinak erabili eta zeinuen hizkuntza berak erabiltzen dituzten herrialdeen kasuak ere badaude. Beheko mapan ASLa munduan zein herrialdetan erabiltzen den ikusi ahal da:



- Herrialde hauetan ASLa edo horren aldaera zein dialekto bat da zeinu hizkuntza nazionala
- Herrialde hauetan ASLaren erabilera esanguratsua beste zeinu hizkuntza batekin batera

(Iturria: <http://en.wikipedia.org>)

Horrenbestez, zeinuen hizkuntzen arteko mugek ez dute zertan bat egin ahozko hizkuntzen mugekin.

Irlandaren kasua, esaterako, berezia da. XVIII. mendearen bigarren erditik aurrera, Ingalaterrako elizak gorrentzako eskolak zabaldu zituen hainbat herrialdetan, tartean, Irlandan. Beste alde batetik, Irlandako monjek neska gorrentzako eskolak zabaldu zituzten. Kontuan hartu behar da, Katolizismoaren eraginez, garai hartan generoen arteko bereizketa oso markatua zela Irlandan bizitzako alor guztietan, baita hezkuntzan ere. Mutilentzako eskoletan Ingalaterrako zeinu hizkuntza erabiltzen zuten; nesken eskoletan, aldiz, Frantziakoa. Bi zeinu hizkuntzak garatu ziren modu paraleloan, eta horrek hainbat ondorio izan zituen, esaterako, gorrez osatutako bikoteetan bikotekideek ez zituzten zeinu berak erabiltzen. Genero bereizketako arauak leundu zirenean, bi zeinu hizkuntzek bat egin zuten, hiztegia eta abar nahastuz, eta egungo Irlandako zeinu hizkuntza sortu zen (Padden, 2001:53).

Bestalde, zeinu hizkuntzak ez dira garatzen haien komunitateko ahozko hizkuntzen gramatikaren menpe, aitzitik, euren morfologia, fonologia, sintaxia eta semantika arau konplexu propioak dituzte (Lemaster; Monaghan, 2006:143). Esaterako, adibide sinple bat ematearren, LSEak eta gaztelaniak oso desberdin jokatzen dute perpauseko osagaien ordenarekin. Hitz-hurrenkerari dagokionez, LSEa SOV¹⁴ motako hizkuntza da, gaztelania, berriz, SVO¹⁵ motakoa:

LSE: Ni liburua irakurri¹⁶
 gaztelania: *Yo leo un libro*

Halere, zeinu hizkuntzek badituzte zenbait ezaugarri ahozko hizkuntzekin komunean. Esaterako, zeinu hizkuntzetan aho mugimenduak ere ageri dira. Aho mugimendu horiek bi multzotan sailkatzen ditugu. Batetik, zeinuen osagarri diren mugimenduak daude. Ez dira hitzak izaten, zeinuen ahozko osagarriak izaten dira, eta funtzio espresiboak zein bereizgarriak¹⁷ izaten dituzte (Rodríguez, 1992:34). Horrelako aho mugimenduak gor guztiek egiten dituzte.

¹⁴ Perpauseko osagaien ordenari egiten diete erreferentzia sigla horiek. SOV hizkuntzetan, subjektua, objektua eta aditza orden horretan joan ohi dira hitz hurrenkera neutroko perpausetan. Euskara, japoniera eta persiera, esaterako, SOV motako hizkuntzak dira.


¹⁵ Perpauseko osagaien ordenari egiten diete erreferentzia sigla horiek. SVO hizkuntzetan, subjektua, aditza eta objektua orden horretan joan ohi dira hitz hurrenkera neutroko perpausetan. Espainola, ingelesa eta txinera, esaterako, SVO motako hizkuntzak dira.

¹⁶ Esaldi hori deklinatu gabe dago, baina horrek ez du esan nahi zeinuen hizkuntzetan deklinabiderik ez dagoenik. Deklinabide sistemak beste era batean funtzionatzen du zeinu hizkuntzetan, eta ezin da hori idazkerara ekarri.

¹⁷ Zeinu bera eginda, aho mugimendu bat edo bestea egin gauza desberdinak adierazten dituzte.

Bestetik, inguru entzulearen hitzez osatutako aho mugimenduak ditugu. Eskolatu gabeko gorrek ez dute azken mota honetako mugimendurik egiten. Mugimendu horiek eskolan ikasi izan dituzte gorrek edo entzuleekin eduki dituzten harremanetan, eta beraz, ezin esan daiteke zeinuen hizkuntzen zati direnik. Lokuzio ondorengo gorrek, eskolatutako gor sakonek eta entzumen arrastoren bat duten gorrek erabili ohi dituzte ahozko hizkuntzako hitz horiek (Rodríguez, 1992:34).

Beste alde batetik, ahozko hizkuntzen hizkiak zeinuetara eramateko alfabeto daktilologikoa erabiltzen dute gorrek. Ahozko hizkuntzak idazteko erabiltzen dugun letra edo sinbolo bakoitza zer zeinuren bidez adierazten den esaten digute alfabeto daktilologikoek.



LSEaren alfabeto daktilologikoa (iturria:
<http://dimealosojos.blogspot.com.es/>)

Bi kasu hauetan erabiltzen dute nagusiki alfabeto hau, batetik, kontzeptu berriak adierazteko: aurrez existitzen ez ziren kontzeptuak adierazteko alfabeto daktilologikoa erabiltzen dute hasieran eta gero hori ordezkatu duen zeinua sortzen dute. Eta bestetik, entzuleekin komunikatzean, leku eta pertsona izen bereziak adierazi nahi dituztenean, batik bat (Rodríguez, 1992:35-36). Horrenbestez, alfabeto honen erabilera nahiko mugatua dela esan dezakegu, kasu zehatz horietara mugatzen baita nagusiki. Dena den, erabilera asko aldatzen da komunitate batetik bestera: esaterako, Estatu Batzuetan alfabeto daktilologikoaren erabilera ohikoa da (Davis in LeMaster and

Monaghan, 2006,142), Tailandian, aldiz, itsusi jotzen da (LeMaster and Monaghan, 2006,142).

Azkenik, ahozko hizkuntzen eta zeinu hizkuntzen arteko pidgin-en fenomenoaz azaldu nahiko nuke. Pidgin-ak hizkuntza desberdinak erabiltzen dituzten pertsonak komunikatzen saiatzen direnean sortzen dira. Ahozko pidginak ugariak dira, esaterako, XVI. mendean euskaldunak Terranovara baleak arrantzatzerako joaten zirenean, bertako tribuekin komunikatzeko pidgin bat erabiltzen zuten¹⁸.

Zeinuen hizkuntzen alorrera etorrira, entzuleak eta gorrak komunikatzen saiatzen direnean sortzen dira pidginak. Izan ere, gorren ingurukoek (familiak, lagunak...) askotan ez dute zeinu hizkuntza ondo ezagutzen, eta aldi berean, zenbait gor ez dira ondo moldatzen ahozko hizkuntzan (Sotillo, 1993:91). Kasu horietan, bien hizkuntzen arteko pidgin bat sortzen da modu naturalean eta pidgin horrek ahozko hizkuntzaren eta zeinu hizkuntzaren ezaugarriak izaten ditu. Pidgin-ek ez dute arau zehatzik, eta erabiltzen duen pertsonaren arabera aldatu egiten da: gorrek erabiltzen dutenean zeinuen hizkuntzako ezaugarri gehiago izango ditu, eta entzuleek erabiltzean, aldiz, ahozko hizkuntzaren eragina nabarmenagoa izango da (Sotillo, 1993:91).

Kasu honetan ere, argi gelditu behar da pidgin-ak erabiltzean gorrek ahozko hizkuntzaren baliabideak erabiltzen dituztela, baina une horietan ez dabilzala zeinuen hizkuntza erabiltzen ari, entzuleekin komunikatzeko kode bat baizik.

¹⁸ Iturria: <http://es.wikipedia.org/wiki/Algonquino-vasco>

6. GORRERIARI ETA GORREN KOMUNITATEEI BURUZKO DATU OROKOR BATZUK

Atal honetan oinarriko zenbait kontzeptu azalduko ditut zeinuen hizkuntzei, gorreriari eta gorren komunitateari buruz. Iruditzen zait Gipuzkoako gorren komunitateari buruzko datuak aztertzerantz sartu baino lehen, lagungarria izango dela informazio hau izatea gaiaren ikuspegi orokorrago bat izateko.

6.1. GOR NORTASUNA

Gorren komunitateari eta gor nortasunari buruzko zenbait artikulutan, gorreria ikusteko eta ulertzeko bi ikuspegi azaltzen dira. Confederación Estatal de Personas Sordas-en (CNSE) webgunean honela definitzen dituzte gizarteak pertsona gorrak ikusteko dituen bi ikuspegi horiek:

- Ikuspegi medikua: gorreria entzumen gaitasunaren galera da eta horri aurre egiteko esku-hartzean jarri behar da arreta.
- Ikuspegi soziokulturala: gorreriak munduan bizitzeko eta izateko beste modu bat ekarri du. Gorreriaren ondorioz, zeinu hizkuntzak garatu dira, bai eta historia nahiz kultura propioa duten gorren komunitateak sortu ere¹⁹.

Gorren nortasunari buruz hitz egitean, *gor* hitzaren izaera bikoitza azaldu beharra dago. Gorren komunitateko kide batzuek ondoko bereizketa hau egiten dute: gorreria patologikoari *g* xehea esleitzen diote, eta *gor* erabiltzen dute; gorren komunitatearen arlo soziokulturalari erreferentzia egitean, aldiz, *Gor* erabiltzen dute, letra larriz. Hau da, *gor* erabiltzen da ikuspegi mediku batetik, entzuteko gaitasunean urritasunen bat

¹⁹ Iturria: http://www.cnse.es/lengua_signos/comunidad_cult.html

duen pertsona izendatzeko, eta *Gor* erabiltzen da komunitate horren izaera kulturalaz eta sozialaz hitz egiteko²⁰.

Badirudi bi ikuspegi hauek aurrez aurre egon izan direla. Lehena, patologiarekin loturikoa, kanpokoen ikuspegia izan da oro har, eta bigarrena, pertsona gorrena²¹.

Bi ikuspegi horiekin lotuta, Iker Amondarainek ondokoa adierazi du hezkuntzan emandako eboluzioaren inguruan:

“Aurrerapausoak eman dira azken urteetan, bereziki hezkuntzaren ikuspegitik. Hezkuntza soilik orala izatetik, eta ikuspegi patologikotik soilik begiratzekotik, tratamendu mediku bat ikustetik, gutxiengo kulturak bat ikustera pasa gara, hezkuntza premia berezi batzuk behar dituenak bai, baina beste ikuspegi bat da, elebiduntasunaren ikuspegia, bikulturala...”

6.2. GORREN KOMUNITATEA | ERROR! MARCADOR NO DEFINIDO.

Historian zehar, pertsona gorrak goian aipatutako ikuspegi mediku horretatik, kanpotik, definitu izan dira. Urte askotan joera izan da gorrak entzule bilakatzen saiatzea eta hezkuntza sistemak ere hori bilatu izan du. Horrenbestez, zeinu hizkuntzak bazterturik egon dira, eta gorren komunitatea gutxietsia izan da.

Gorren komunitatea, XX. mende bukaera aldera, sakon hasi zen hausnartzen euren historiari, kulturari, komunitateari nahiz hizkuntzari buruz, eta haien nortasuna defendatzen hasi ziren. Hausnarketa horri William C. Stokoe hizkuntzalariak zabaldu zion bidea 1960an *Sign Language Structure* lana argitaratu zuenean. Liburu horretan, lehenago azaldu bezala, frogatzen du zeinu hizkuntzak hizkuntza naturalak direla eta ahozko hizkuntzen ezaugarri linguistiko berberak dituztela. Beste une garrantzitsu bat 1988an gertatu zen, Gallaudet unibertsitateko ikasleek mobilizazio handiak antolatu zituztenean errektore gor bat izateko eskatuz. Mobilizazio haiek AEBetako gorren komunitate barruan eztabaida eta hausnarketa garai bat zabaldu zuten, eta poliki-poliki beste herrialde batzuetara zabaldu zen prozesu hori.

²⁰ Lan honetan ez dut bereizketa hori egin eta “g” xehea erabili dut bai ikuspegi patologikoari buruz aritzeko bai alderdi soziokulturala jorrazteko

²¹ Iturria: http://www.cnse.es/lengua_signos/comunidad_cult.html

Guzti horren ondorioz, gaur egun gero eta gor gehiagok euren buruari buruz duten kontzeptua ez da ikuspegi medikura mugatzen, haratago doa, kultura, nortasuna eta harrotasuna bezalako kontzeptuak ageri dira euren komunitatea definitzerakoan. Zoritxarrez, gizartearentzat gorren komunitatea arrotza da oro har, eta pertsona gehienek ez dute guzti horren berri.

CNSEko webgunean honela definitzen dira gorren komunitateak: zeinu hizkuntza baten eta mundua ulertzeko ikuspegi bisual baten inguruan eraikitako kultura- eta hizkuntza-balore berak dituzte komunitateak dira, eta ondare linguistiko eta kultural hori elkarbanatzen duten gor eta entzuleek osatzen dute.

Gipuzkoara etorrita, Cristina Diaz-ek honako hau azaldu du gorren komunitateari buruz:

“Es una comunidad que por lo general están orgullosos de pertenecer a esa comunidad. No tienen una sensación de ‘somos menos o somos peores...’ Están muy orgullosos de su lengua, de la lengua de signos, tienen una identidad propia muy definida”.

Iñaki Madinabetiak honako hau adierazi du gorren nortasunaren eraikitze prozesuari buruz:

“Aurrerapausoak egon dira, aurrerapauso handia izan da: gorrak euren buruaz harro egoten hasi dira, euren eskubideak aldarrikatzen, euren nortasuna finkatzeko prozesua hasi dute, eta horrek izan du eragina”.

Horrez gainera, aipamen hau egin du guraso gorrak dituzten umeen eta entzuleak dituztenen arteko aldeari buruz:

“Gor gehienek (% 95ek gutxi gorabehera) guraso entzuleak dituzte. Gainerakoek guraso gorrak dituzte, eta guraso horiek gortasuna harrotasunez bizi badute, integratzeko aukera gehiago eta etorkizun hobea izango dute umee”.

Iker Amondarainek gorren komunitatean bi alde daudela azaldu du:

“...harro sentitzen dira gor izateaz (...) ‘ni gorra naiz, G larriarekin gainera’. Gor nortasuna barneratuta eta hezkuntza prozesu normala izan duen gorrak horrela bizi dute. Horrek eramaten ditu hiztunen komunitatera beste segurtasun batekin parte hartzera”.

Beste alde batetik, azaldu du gorren komunitatean badagoela beste talde bat ere harrotasun hori horrela bizi ez duena:

“(...) Harro daudenak oso harro daude, eta galduta daudenak oso galduta daude tamalez (...) Oso modu orokorrean esanda, nortasunaren eraikuntza oso jatorra izan ez dutenak eta entzumen arrastoak dituztenak, inplanteekin eta teknologia berriekin orain entzule direla uste dutenak, galduta sentitzen dira. Haiek uste dute ‘Ni hi bezalakoa nauk, ni entzulea nauk, hi bezala funtzionatzeko kapaz nauk’ eta ez da egia, eta frustrazioa potentea da, nire ustez. Ikusten dituzte *G* larri hori daramaten gorrak eta hor ez, baina entzuleekin ere ez. Galduta egoten dira”.

Ikerren Amondarainen bi aipu horietan nabarmentzen da hezkuntza prozesu “normalaren” garrantzia. Bere hitzetan, hezkuntza prozesu integratzaile bat izan duten gorrak komunitate horretako kide sentitzen dira eta harro daude gor izateaz. Horrelakorik izan ez dutenek, berriz, galduta egon ohi dira bere hitzetan.

Gorrek entzuleekiko duten ikuspegiari buruz galdetuta, errezeloak badaudela ondorioztatu dut elkarrizketetatik. Hurrenez hurren Cristina Díaz-en, Iker Amondarainen eta Iñaki Madinabeitiaren hitzak:

“...resentimiento hacia los oyentes, que no hacen lo suficiente por entenderles. En realidad también puede ser así. De hecho hasta ahora ha sido así”.

“Denetarik egongo da, baina gaizto puntu batekin esango dut, inbidiatan bezala imajinatzen ditut. Egoerak ez du erraza izan behar, denok saiatu izan gara bereziki nerabezaroan, eta gero ere bai, normal eta berdin izaten eta ez destakatzen, estandar izaten, eta eurak estandarretik ez dute”.

“Gorrek zenbat eta zaharrago orduan eta errezelo gehiago hiztunekiko”.

Iñaki Madinabeitiaren azken aipu hau gorako Iker Amondarainek azaldutako hezkuntza prozesu “normal” edo integratzaile horrekin dago lotuta. Egungo joera da hezkuntza sisteman gorrei zeinu hizkuntza erakustea, haien kulturaren eta historiaren berri ematea eta haien nortasuna lantzea. Hori, dena den, nahiko joera berria da, izan ere, duela gutxi arte joera gorrei hitz egiten irakastea zen; ez zitzaien zeinu hizkuntza irakasten, ez eta haien kultura eta historiari buruzko ezer ere. Horrenbestez, azken eredu horretan ikasi duten gorrek hainbat gabezia dituzte, eta besteak beste,

pentsatzekoa da entzuleekiko errezelo gehiago ere izaten dituztela. Gai horri buruz sakonago hitz egingo dut 7.1. eta 7.2. puntuetan.

Gorren komunitatea anitza da oso. Entzuleen artean bezalaxe, interes, ardura, joera politiko, izaera, jarrera... ugaritako pertsonak daude barnean. Horrez gainera, gorren komunitatea ez dute soilik gorrek osatzen, zeinu hizkuntza erabiltzen duten entzuleak ere komunitateko kide izan daitezke, bai eta zeinu hizkuntza jakin gabe ere komunitatearekin hartu emanak dituen edonor ere.

Barbara Lemaster eta Leila Monaghan adituek 2006an argitaratutako *Variations in Sign Language* artikuluan jasotakoaren arabera, hiru maila daude gorren komunitatean: gorren komunitatea, gorren kultura eta gorren etnizitatea. Talde zabalena gorren komunitatea da, izan ere, gorrekin lotutako gaiekiko interesa duten guztiak hartzen ditu barne. Beraz, talde honetan entzuleak ere sartzen dira, eta bertako kide izateko ez duzu zertan gorren kultura edo gorren etnizitatea eduki.

Gorren kultura duten kideen artean ere entzuleak eta gorrak daude. Talde honetako kide izateko zeinu hizkuntzan ondo moldatu behar duzu eta gorren kulturako jokaera arauak bete behar dituzu. Talde honetako erdigunean gorren etnizitatea duten kideak daude.

Hirugarren maila, gorren etnizitatea duena, talde itxiena da. Gor jaio diren umeak eta guraso gorrak izan dituzten pertsona entzuleak sartzen dira bertan, eta baldintza nagusia da zeinu hizkuntza lehen ama hizkuntza izatea.

6.3. ZEINU HIZKUNTZAREN TRANSMISIO AHULA

NO DEFINIDO.

Umeen % 5-10ek guraso gorrak izaten dituzte. Horrek esan nahi du ume gor gehienen gurasoak ez direla gorrak eta ez dakitela zeinu hizkuntza. Zentzu horretan zeinu hizkuntzen transmisioa ahula da halaberrez: ume gor gehienek ez dute euren

gurasoengandik jasotzen, eskolan jasotzen dute, aukera ematen bazaie. Aldi berean, ume horiek guraso bihurtzean, gehienek seme-alaba entzuleak izango dituzte. Lehenengo belaunaldi horrek zeinu hizkuntza ama hizkuntza moduan ikasiko du, baina entzule direnek, eta gehien-gehienak hala izango dira, kasuan kasuko gizartearen ahozko hizkuntza ere ikasiko dute, eta hurrengo belaunaldiei hura erakutsiko diete. Hala, zeinu hizkuntzaren transmisioa ahulduz joango da; suposatzea da, kasu gehienetan, hirugarren belaunalditik aurrera –ez bada lehenagotik– ez dela transmitituko.

6.4. AHOZKO ZEIN ZEINU BIDEZKO HIZKUNTZEZ JABETZEKO

GAITASUNA ¡ERROR! MARCADOR NO DEFINIDO.

Gorreria ezgaitasun bat da, eta beraz, entzumen sistemako funtzio anatomiko edo/eta fisiologikoen galerari egiten dio erreferentzia. Horrek berehalako eragina du entzuteko gaitasunean eta ondorioz ahozko hizkuntzaz jabetzeko urritasuna dakar²².

Gorreriarri buruz hitz egiterakoan, kontuan izan behar dugu gor guztiek ez dituztela hizkuntza gaitasun berak ahozko hizkuntzan zein zeinu hizkuntzan. Bi aldagai daude gaitasun horretan eragiten dutenak, batetik, zer adinekin galdu zuen pertsona horrek entzuteko gaitasuna, eta bestetik, zer mailatako galera duen.

Lehenengo aldagaiari erreparatuz, lokuzio aurreko gorrak eta lokuzio ondorengo gorrak ditugu. Lehenengo talde horretakoak dira gor jaio zirenak edo lehen/bigarren urtea bete baino lehen gor gelditu zirenak, hau da, ahozko hizkuntzaren jabetzaren prozesua hasi gabe zutenean gor gelditu zirenak. María Ángeles Rodríguez-en arabera, talde honetakoek izaten dute zeinu hizkuntzarik puruena (Rodríguez, 1992:38).

Lokuzio ondorengo gorrak ahozko hizkuntzaren jabetzaren prozesuan zeudenean edo prozesu hori amaitu ondoren gor gelditutakoak dira. Azken talde honetan, gor batzuen

²² Iturria: <http://www.fiapas.es/FIAPAS/reddeatencion.html>

eta besteen artean ezberdintasun nabarmenak daude ahozko zein zeinu bidezko hizkuntzez jabetzeko ahalmenean. Gor gelditzeko unean zenbat eta nagusiagoa izan, orduan eta barneratuago izango dute ahozko hizkuntza eta gaitasun handiagoa izango dute horrenbestez ahoz moldatzeko. Talde honetakoek erabiltzen duten zeinu hizkuntzan ahozko hizkuntzaren eragina nabarituko da, eta kasuan kasuko egoeraren arabera, eragin hori handiagoa edo txikiagoa izango da (Rodríguez, 1992:38-39). Logikoa denez, lokuzio ondorengo gorrek ahozko hizkuntzak ikasteko gaitasun handiagoa dute lokuzio aurrekoek baino, izan ere, maila batean edo bestean hizkuntzaren zati batez edo sistema osoaz jabetu dira gor gelditu baino lehen.

Entzumen galeraren mailak ere eragina du noski gorrek ahozko zein zeinu hizkuntzak ikasteko duten gaitasunean. Mailaketa horren mutur batean gor sakonak daude. Gor sakonek 90 dezibeliotik (db) gorako soinuak soilik entzuten dituzte, ez dira ahotsak entzuteko gai, eta beraz, ahozko hizkuntza forma naturalean²³ ikastea ezinezkoa da gorreria sakonarekin jaio diren haurrentzat zein bi urte egin baino lehen gorreria sakona garatzen dutenentzat. Beste muturrean entzumen urritasun txikiren bat duten pertsonak daude, eta horiek ez dute aparteko arazorik ahozko hizkuntzak ulertu eta hitz egiteko.

Galeraren arabera hainbat maila bereizten dira. Behean *Ikasle gorren sarbidea hizkuntzen curriculumean. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza* lanean (Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila, 2013:10) jasotako sailkapena:

- Entzumen arrunta: 0 eta 20 dB artekoa.
- Entzumen Galera Arina (EGA): 20 eta 40 dB artekoa. Zenbait fonema eta oso intentsitate baxuko emisioak jasotzeko arazoak
- Entzumen Galera Ertaina (EGE): 40 eta 70 dB artekoa. Mintzairaren pertzepzio orokorra lortzeko audifonoen egokitzapen ona behar da.

²³ Forma naturalean diodanean, entzuleek hizkuntza jasotzeko moduari buruz ari naiz. Entzumen urritasunik ez duen ume batek bere inguruko hizkuntza(k) entzun eta berez ikasten d(it)u aparteko laguntzaren beharrik gabe, entzute hutsarekin.

- Entzumen Galera Larria (EGL): 70 eta 90 dB artekoa, batez beste. Entzumenaren bidez jasotzen dituen elementuak ezpainen eta aurpegiaren irakurketarekin osatu behar ditu; hori guztia audifonoaren laguntzari esker eta entzumenaren entrenamenduari esker lor daiteke.
- Entzumen Galera Sakona (EGS): 90 dB baino gehiagoko galera, batez beste. Hizkuntzaren pertzepziorako, garrantzi handia hartzen dute estimulazio bibratilak eta bisualak.

7. GIPUZKOAKO GORREN KOMUNITATEA

Atal hau osatzerakoan, asmoa izan da azterketa soziolinguistiko bat egitea Gipuzkoako gorren inguruan. Horretarako, pertsona baten bizitzan eragina duten aldagai guztiak kontuan hartzen saiatu naiz (hezkuntza, hedabideak, administrazio publikoarekiko harremanak, lan arloa...) eta helburua izan da horietan guztietan gorrak nola moldatzen diren deskribatzea: zer aukera dituzten, zer gabezia dauden, nola sentitzen diren, zer iritzi duten...

Atal honetan hainbat datu jaso ditut, eta horiek lortzeko, gorren komunitateko zenbait elkartetara jo dut. Batik bat, Aransgi-koek lagundu didate lan horretan, baina Euskal Gorrak-etik eta GPGETik ere eman didate laguntza. Horretaz aparte, 6. atalean azaldu dudan moduan, informazio subjektiboagoa ere jaso nahi izan dut, eta horretarako, elkarrizketetan jasotako informazio baliagarria ere txertatu dut.

7.1. GIPUZKOAKO GORRAK | ERROR! MARCADOR NO

DEFINIDO.ZENBAKITAN

Gipuzkoan pertsona gorrak zenbat diren zehatz esaterik ez dago hainbat arrazoi direla tartean. Jakin dezakegu hezkuntza sisteman zenbat diren haur gorrak eta jakin dezakegu gorren elkarteetan zenbat bazkide diren. Azken talde horretan gorrak zenbat diren ez dakigu, izan ere, badago elkarteetako bazkide izan baina gor ez den jendea, bai eta zerbitzuak jasotzen dituzten bazkideak ere gor izan gabe. Horrez gainera, pertsona gor batzuek ez dute harremanik elkarteekin.

Bada hor azalpena merezi duen fenomeno bat: pertsona gor batzuek eta haien familiek, batik bat hezkuntza ez inklusiboa jaso dutenek, joera izan dute ezgaitasuna ez onartzeko, eta gorra entzule gisa tratatzeko. Atal honetako 5.2. puntuan, *Ume gorrentzako hezkuntza eskaintza* izenekoan, jorratuko dut gaia sakonago. Profil

horretako jendeak ez du gorren elkarteetara jotzen eta ez dago modurik kontabilizatzeko.

Kopuru batzuk ematearren, 2012-13 ikasturtean Gipuzkoako hezkuntza sisteman –Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza, Bigarren Hezkuntza, Lanbide Heziketa eta Unibertsitatea– 109 ume gor egon dira eta Euskal Gorrak-ek 256 bazkide ditu Gipuzkoan.

Azaldu bezala, datu zehatzei buruz hitz egitea zaila da, estatistikez, ordea, hitz egin dezakegu. *Confederación Española de Familias de Personas Sordas (FIAPAS)*²⁴ erakundearen datuen arabera, Espainian urtean jaiotzen diren mila umetik bat gortasun sakonarekin jaiotzen da eta milatik bost jaioberrik mota eta maila desberdineko entzumen urritasunen bat izaten du. Gipuzkoak 2011n 705.210 biztanle zituen (Eustat, 2011-XI-01), eta beraz, esan dezakegu, datu estatistikoetan oinarriturik, probintzia honetan 700 pertsona inguru izango lirakekeela jaiotzetik gor sakon eta 3500 pertsona inguruk izango luketela jaiotzetik entzumen urritasunen bat. Argi dago, horrenbestez, hezkuntza sistematik eta elkarteetatik at gor asko daudela.

Maila desberdineko gortasunekin jaiotzen direnez aparte, bada beste jende kopuru bat bizitzan aurrera egin ahala entzumen urritasunen bat garatzen duena, dela istripuengatik, gaixotasunengatik, adinagatik... Populazioaren zahartzea ere aintzat hartzekoa da, izan ere, Osasunaren Mundu Erakundeak 2013an argitaratutako datuen arabera, 65 urtetik gorakoen artean hirutik batek entzumen arazoren bat dauka.

Jaiotzez gorrak diren pertsonak, beraz, ez dira % 1era iristen. Gorrak gutxi dira eta sakabanaturik daude –ume gor gehienek, % 90-95ek, guraso entzuleak dituzte eta normalean entzulez inguraturik bizi dira elkarteetan edo ikastetxean beste gor batzuk ezagutu arte–. Dentsitate gutxiko komunitate bat da gorrek osatzen dutena, komunitate txiki bat, eta askotan ikusezina. Gainera, gorren ezgaitasuna ikusezina da kasu askotan, izan ere, hizkuntza tartean ez dagoen egoeretan ezinezkoa da jakitea

²⁴ FIAPAS 1978an sortu zen gorren familiei eta gorrei eurei erantzun bat emateko. FIAPAS nazio erakunde bat da eta 46 konfederazioz dago osaturik. Informazio gehiagorako: www.fiapas.es

pertsona hori gorra den ala ez. Iker Amondarainek honako hau zioen gai honen inguruan:

“Esaten dute gorreria ezintasun ikusezina dela: gor bat ikusten duzu kalean eta ez zara konturatzen gorra denik. Inguruan tokatzen zaionak: ikaskide gor ba izan zuenak, edo bizilagun gor bat... interesa badu, zerbait egingo du, baina bestela... gizarteak ez du bizi, baina ez gorrena eta ez beste edozein urritasunena.”

7.2. UME GORRENTZAKO HEZKUNTZA ESKAINTZA

Atal honetan, hasteko, ume gorrek hezkuntza zikloa nola banatzen diren ikusiko dugu. Behean ume gorrek hezkuntza sistemako zikloen artean 2013an nola banatu diren erakusten duen taula bat daukagu. Geroago azalduko dudan moduan, joera izaten da gorrek elkartzea, batetik, elkar ezagutu dezaten, eta bestetik, modu horretan baliabideak optimizatzen direlako ikastetxe gutxi batzuetan zerbitzuak eskainiz. Eskolara joateko adinean dauden gorren bizilekuaren arabera, herri desberdinetako ikastetxeetan jartzen ditu Aransgi-k²⁵ baliabideak. 2013an Donostiako, Bergarako eta Tolosako ikastetxe banatan eskaini zituzten baliabideak.

	DONOSTIA	BERGARA	TOLOSA	GUZTIRA
Laguntza goiztiarra	4	0	1	5
Haur Hezkuntza	19	4	5	23
Lehen Hezkuntza	14	11	10	35
DBH	15	2	9	11
ZIG	0	0	0	0
Batxilergoa	6	0	1	7
Lanbide Heziketa, erdi mailakoa	5	0	0	5
Lanbide Heziketa, goi mailakoa	3	0	0	3
Unibertsitatea	0	0	0	0

²⁵ Gipuzkoako ume gorrek, hezkuntza sisteman dauden bitartean, laguntza osagarria jasotzeko aukera dute, eta laguntza hori lurralde historiko honetan Aransgi elkarteak kudeatzen du batik bat.

Gradu ondokoak	0	0	0	0
GUZTIRA	66	17	26	109

Aransgi elkartetik jasotako informazioa

Ume gorrek entzumen alorreko ezgaitasun bat dute, eta ahozko hizkuntzaz jabetzeko kanala entzumena denez, arazoak izaten dituzten ahozko hizkuntzez jabetzeko. Gorrak gutxi izaten dira, goian esan bezala, mila umetik bat jaiotzen da gor sakon, eta beraz, gorrak gizarte entzule batean bizi dira. Ume gorrek entzuleentzat diseinaturiko hezkuntza sisteman ikasten dute, eta sistema horretan ahozko hizkuntzak dira bitarteko nagusi ikasleek edukiak jaso ditzaten. Aparteko laguntzarik gabe, hezkuntza sistemak ez du ziurtatzen ume eta gazte gorrek ume entzuleen maila bereko hezkuntza jasoko dutenik.

María Ángeles Rodríguez-ek *Lenguaje de Signos* (1992) liburuan gorrek jasotzen duten hezkuntzaren inguruan idatzi zuen, eta behekoa azaldu zuen entzuleentzat diseinatutako hezkuntza sisteman gorrek lortzen duten hezkuntza mailari buruz:

“...se ha conseguido que el niño sordo de nacimiento adquiera una educación básica muy limitada con relación a la educación de un niño oyente de su misma edad, y que apenas ninguno llegue a concluir una educación secundaria, y, menos aún de tipo universitario.” (Rodríguez, 1992:37)

Esanda geratu den moduan, kontuan hartu behar da duela gutxira arte gorrentzako hezkuntza sistema oralista izan dela eta helburu nagusia gorrei hitz egiten irakastea zela. Horrenbestez, ez zitzaien zeinu hizkuntza irakasten eta ezpainak irakurtzearen bidez ahozko hizkuntza ikasiko zutela espero zen.

Hala izan zen Aransgi-ren kasuan ere, elkartetik azaldu dutenez, elkarte gurasoengandik sortu zen (1967) gorrengandik oso aparte. Gero poliki-poliki hasiera batean nahi ez zuten kongruentzia batera heldu ziren. Izan ere, hasieran gurasoek ez omen zuten ezer jakin nahi gorrekin, elkarte antolatu zuten gor ez izateko. Aransgi-tik emandako informazioaren arabera, gero denborarekin konturatu ziren haien seme-alabak gorrak zirela nahitaez, eta desberdinak zirela, eta beste gor batzuekin harremanak izateko beharra zutela. Une horretan sortu omen zen harremana gorrekin,

harreman zaila. Elkartekoen hitzetan, garai hartan, Aransgi sortu zenean, zeinua ez erabiltzeko esaten zuten eta debekatu ere egin zuten.

Esango nuke egungo egoera Gipuzkoan behintzat ez datorrela bat Rodríguez-ek aipamen horretan esaten duenarekin eta ausartzen naiz esatera hein handi batean hezkuntza sistema elebidun²⁶ baten alde egindako lanaren ondorio dela. 2013an Gipuzkoan 15 gorrek egin zituzten goi mailako ikasketa; hezkuntza sisteman daudenen % 14 dira. Egoera behintzat ez da aipu horretan islatzen dena bezain txarra.

Aldaketa horren adibide Unairen kasua izan daiteke. Cristina Díaz-ek, Unairen amak, honakoa azaldu zuen elkarrizketan, imajinatuz bere semea nolakoa izango zen orain aparteko laguntzarik jaso izan ez balu:

“...solo con la educación ordinaria, te puedo asegurar que... nada que ver, pero nada que ver. (...) Sería... pues no analfabeto, pero no mucho más. Sabría leer, sabría escribir y sabría lo básico. No porque sean unos ineptos. Las horitas que les lleva aparte, de apoyo y demás, con dos horas semanales no haces nada”.

Beste alde batetik, kontuan hartu behar da entzuteko arazoak dituzten pertsonak ez dutela jasotzen entzuleek ingurunetik jasotzen duten informazio asko. Entzumenaren bidez informazio pila bat jasotzen dugu: irratitik, telebistatik, ondokoek komentatu dutenetik, zarata eta hotsetatik eta abar, bai eta isiltasunetik ere. Informazio hori guztia lortzeko oztopo handiagoak izaten dituzte, eta horrek eragina izan ohi du euren garapenean: jakintza maila apalagoa izaten dute, ez adimen mailako arazoengatik, baizik eta informazio guzti hori eskuratzea askoz nekezagoa delako haientzat. Beheko lerrootan *Ikasle gorren sarbidea hizkuntzen curriculumean. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza* lanean gai honi buruz aipatutakoak bildu ditut:

“Entzumenak etengabe informazio berriak jasotzeko aukera ematen du, bai antolatutako irakaskuntzan, bai komunikabideen bitartez eta bai elkarrizketa informaletan. Informazio horrek berori jasotzen duen pertsonaren ezaguerak zalantzan jartzen ditu, birplanteatu egiten ditu, eta areagotu”. (Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila, 2013:14)

²⁶ Sistema elebidun diogu zeinu hizkuntza eta ahozko hizkuntza erabiltzen delako. Zeinu hizkuntza komunikazio hizkuntza ere bada, hau da, edukiak zeinu hizkuntzan jasotzen dituzte ume eta gazteek (zati batean bederen).

Txostenak laburbiltzen du gorrak zaugarri direla ahozko hizkuntzak ikasteko dituzten arazoengatik eta ingurunearekin elkarreragiteko dituzten aukera urriagoengatik, eta horien ondorioz, eskuratzen duten informazioa murriztagoa delako.

Egun Aransgi-n hezkuntza elebiduna sustatzen dute ume gorrentzat. Hezkuntza curriculumetako edukiez gain, Aransgi-n berariazko curriculum bat ere lantzen dute. Curriculum horretako edukiak modu transbertsalean lantzen dituzte ikasturtean zehar, eta horrez gainera, eskola orduz kanpo ere berariazko eduki horiek jorratzen saiatzen dira: irteeretan, hitzaldietan, udalekuetan... Curriculum horren baitan askotariko gaiak lantzen dituzte: gorren historia eta kultura, gorren gizarteratzea, lan mundua...

Curriculum horren garrantziari buruz, horrela mintzatu da Iñaki Madinabeitia:

“Curriculum arruntari guk erasten diogu berariazko curriculum. Administrazioak ere esaten du ‘beste curriculum bat, zertarako?’ Ba zuk gai hauek berariaz lantzen ez badituzu, gorrek ez dute ikasiko, eskoletan ez baitira enteratzen. Bereziki gorrentzat prestaturik ez badago, erdizka jasotzen dute mezua”.

Aransgi-koen esanetan, erantzun global bat ematen saiatzen dira eta gorren nortasuna ere lantzen dute, komunitate gutxitu baten parte direla jakin dezaten eta haien historia zein kulturaren berri izan dezaten.

Iñaki Madinabeitiaren hitzetan, horrelako edukiak landu dituzten gazteak hobeto integratzen dira. Horrekin lotuta, honako adierazpen hau egin du Madinabeitiak gorren hezkuntza sistemei buruz:

“Emitza onenak eman dituzten programetan gorrek harreman gutxi izan dute entzuleekin, eta hasieratik argi utzi zaie gorrak direla, desberdinak direla (...) Programa horietan gorra izatearen harrotasuna eta kultura landu behar dira.”

Haur gorren gurasoek Aransgi-ra jotzen dutenean, laguntza programa oso bat eskaintzen zaie, eta gero, elkarteko aholkulariaren gomendioekin, gurasoen irizpideari jarraituz eta kasuan kasuko egoerara egokituta, haur horrek jasoko duen laguntza osagarria definitzen da.

Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Sailarekin sinatutako hezkuntza hitzarmen bati jarraiki, Aransgi-n arduratzen dira Gipuzkoako entzumen alorreko behar bereziak dituzten pertsona guztiei hezkuntza aukera egokiaren inguruko orientazioa eta babesa emateaz. Horretarako, gorrentzako irakasle eta logopeda espezialistak dituzte²⁷.

Laguntza hori pertsonalizatua izaten da, eta beraz, kasu batetik bestera aldatu egiten da. Batxilergora arte, oro har, ume eta gazte horiek entzuleen eskoletara joaten dira, baina horretaz aparte, berariazko arreta jasotzen dute. Horrenbestez, elkarteko profesionalak ume edo gaztearen ondoan egoten dira ordu batzuetan gelan bertan eta laguntza ematen diote. Laguntza hori ez da mugatzen esandakoa zeinu hizkuntzan emateari, profesional horiek ikasleari jarraipena egiten diote eta edukiak jasotzen dituela bermatzen dute, eta horretarako, ahozko hizkuntzan esandakoak itzuli eta egokitzen dituzte, besteak beste. Gelan bertan jasotzen duten laguntzaz gain, beste ordu batzuetan ikasle horiek gelatik ateratzen dira eta berariazko arreta jasotzen dute. Eskolako bertako profesionalek (logopeda, urritasunetan berezitutako irakasleak...) ere laguntza osagarria ematen diete –eskolen baliabideen arabera izaten da ume edo gazte bakoitzak jasotako ordu kopurua–.

Aransgi-koek ikastetxe konkretuetan jartzen dituzte baliabideak. Oro har eskualde bakoitzean ikastetxe batean izaten dituzte baliabideak. Ikastetxe horiek aldatuz joaten dira hezkuntza sisteman dauden gorren bizilekuaren arabera.

Aransgi-tik jasotako informazioaren arabera, saiatzen dira gelatik kanpo egiten dituzten ordu horietan gorrek beste gor batzuekin harremanetan egon daitezen: beste edozein umek bezala ume gorrek ere komunikatzeko eta lotura afektiboak egiteko beharra dute, eta entzuleekin komunikatzeko zailtasunak dituztenez, eurak bezalako ume gorrekin egotea onuragarria da euren garapenerako.

Klara Begiristainek ere ume gorrek, entzuleekin egoteaz gain, beste ume gor batzuekin egon behar dutela adierazi du: *“Ahora los padres quieren mejor para sus hijos sordos que vayan con oyentes pero también deben estar con niños sordos para aprender lengua de signos”*.

²⁷ Iturria: <http://www.aransgi.org/eu/>

Batxilergoari dagokionez, sistema pixka bat aldatzen da. Batxilergoa egiten ari diren Gipuzkoako gor guztiak Donostiako Usandizaga institutuan egoten dira, denak batera. Esan bezala, nahi izaten da gorrak eskola batean zentralizatzea, euren artean harremana izan dezaten, izan ere, kopuruz hain gutxi izanda, bestela zaila izaten da haientzat beste gor batzuk ezagutzea. Horrez gainera, interpreteak sartzen dira gorren hezkuntza sisteman lehen aldiz. Aurreko etapetan bezala, ordu batzuk entzuleekin egiten dizute gelan eta gero ordu batzuetan gorrentzat prestatutako eskolak jasotzen dituzte. Ordu guztiak zeinu hizkuntzan jasotzen dituzte.

Ume gorrek jasotzen duten aparteko laguntza horren garrantziaz honako hau esan du Cristina Díaz-ek, izan ere, Eibarretik Bergarara eraman dute haien semea laguntza hori jaso ahal izateko:

“Unai ha cambiado de instituto y básicamente lo cambiamos allí porque Aransgi nos ofrece en las asignaturas más fuertes (lenguaje, matemáticas, natur y sociales) está el profesor de Aransgi con él. El profesor que sabe lengua de signos, que es profesor de sordos. Te van explicando el tema a tu ritmo y a ti”.

Unibertsitatera joaten diren gorrek eta Lanbide Heziketa egiten dutenek Batxilergoko zerbitzuaren antzekoa jasotzen dute. Hori bai, gutxi izaten dira eta normalean zerbitzu hori bakarkakoa izaten da. Egungo baliabideekin goi mailako ikasketak egiten dituzten gorrek ez dute orduen % 100 zeinu hizkuntzan jasotzen, baliabide nahikorik ez dagoelako.

Aransgi-koen hitzetan, unibertsitatera joaten diren gorrek irteera profesional oso zaila dute, izan ere, entzuleekin lehiatzea ez da erraza gorrentzat. Jasotako informazioaren arabera, titulu bera duten entzule eta gor baten artean normalean entzulea aukeratzen da, eta hori oso frustantea da gorrentzat, azken batean, aukera berdintasunik ez dutelako.

Esan dugu joera izaten dela ume eta gazteak elkartzea elkar ezagutu dezaten. Bestalde, umeak elkartzearen beste arrazoi bat ekonomikoa da, umeak elkartzea ekonomikoki bideragarriagoa baita ume bakoitzaren ondoan profesional bat edukitzea baino. Arlo ekonomikoa aipatuta, esan beharra dago krisiaren eragina ere nabarmena dela

gorrentzako laguntzen arloan: 2012an Aransgi-n Hezkuntza Delegaritzako hiru profesional gutxiago izan zituzten.

Haur eta gazte horiek jasoko duten laguntza osagarria gurasoen erabakien esku gelditzen da erabat, izan ere, guraso batzuek erabakitzen badute haien seme-alabek ez dutela inolako laguntzarik behar, ez dute laguntzarik jasoko.

Aransgi elkartetik jasotakoa informazioaren arabera, haur gorren guraso batzuek ez dute euren seme-alaben ezgaitasuna onartzen. Horrelako kasuetan, gurasoek ez omen dute nahi izaten haien seme-alabak beste gor batzuekin elkartzetik, ez eta zeinu hizkuntza ikas dezaten ere. Medikuek esanda edo logopedaren batek hala baieztatuta izan ohi dute horrelako ikuspegia gurasoek kasu askotan. Hauek izan dira Iñaki Madinabeitiak esandakoak hitzez hitz:

“Osasun alorreko espezialistek esan dietenari jarraituz, gurasoek uste dute umeak egungo aurrerapen teknologikoekin (audifonoak eta inplante koklearrak) ez duela arazorik izango entzuleen artean integratzeko, beste bat izango dela entzuleen artean. Hori sinetsita, uste dute onena dela haien haurra entzuleen artean egotea, gorrik ez ezagutzea eta zeinu hizkuntza ez erakustea.”

Beste aipu hau ere jaso diot horrelako jarrera duten gurasoei buruz:

“Guraso askok gainera ez dute gorren mundua ezagutu nahi izaten. Gorrek antolatutako ekimenetara oso guraso gutxi etortzen dira. Guraso guztien kontua da: ikasketadunak, ikasketa gabekoak...”.

Hona hemen Cristina Díaz-en gaiari buruz emandako iritzia:

“El implante para quien lo quiera como solución. Nosotros no nos lo hemos planteado porque no dejás de ser sordo. El implante es un audífono mejor; es el mejor audífono. Pero no deja de ser un audífono. Hay muchos sitios (en la playa, al hacer deporte...) donde te lo tienes que quitar, tanto el audífono como el implante. En clase por mucho implante que tengas necesitas un apoyo. Es mucho más sutil y entonces los fonemas los aprendes más como un oyente. Entonces tu habla es más como la de un oyente. Pero al final, el problema, el aprendizaje y todo, sigue siendo igual. Claro, si te tratan como un oyente, no eres oyente y... A veces se le da más información al sordo profundo, porque como es tan evidente que no le llega”.

Cristina Díaz-ek horrelako jarrera duten bi gurasoren adibideak eman ditu. Batetik, Aransgi-n haren semearekin batera egondako ume baten kasua azaldu du:

“En Bergara (Unai) sí coincidió con otro chaval, que luego dejó de ir. Le pusieron un implante, no querían que aprendiese lengua de signos y le dejaron en Mondragón solo”.

Eta bestetik, azaldu du berak aurrez ezagutzen zuen familia batean ume gor bat izan zutela, eta haren amaren jarrerari buruz hurrengo azaldu du:

“Su madre jamás me ha comentado nada al respecto y yo no me atrevo a decirle nada, porque supongo que no quiere hablar del tema. A mí me llama la atención. Entre los padres podíamos hacer una especie de club y de terapia muchas veces. Yo te puedo ayudar a ti y tú a mí. No hay mucho de eso”.

Aransgi-tik azaldutakoaren arabera, urtetako esperientziak erakutsi die ezgaitasuna ukatzea ez dela bidea, izan ere, ume horiek teknologia berrien laguntzarekin ere ez omen dute entzuleen maila funtzional²⁸ bera izatea lortzen, ez dira entzuleak bezala moldatzen. Haien esanetan, entzumen urritasun horrekin kostatzen zaie lagun entzuleei eustea eta askotan integratzeko arazoak izaten dituzte. Arazo horiek nerabezaroa heltzean areagotu egiten omen dira, eta orduan jotzen dute itxuraz guraso askok elkartera.

7.3. ZEINU HIZKUNTZA HEZKUNTZA SISTEMAN

Aurreko atalean azaldu bezala, entzuteko arazoak dituen pertsona batek zailtasunak ditu ahozko hizkuntzak ikasteko. Bestalde, ezpainak irakurtzeko gaitasuna ere mugatua da; aho mugimenduak behatzearen bidez ahozko hizkuntzak ikastea hizkuntza horiez jabetzeko modu anormala da (Rodríguez, 1992:37). Ezpainak irakurtzearen bidez, gorrek ez dute entzuleen maila funtzional bera lortzen.

Maila funtzional hori eskuratzeari buruz honako hau esan du Cristina Díaz-ek:

²⁸ Entzumenaren bidez gaitasun batzuk garatzen ditugu entzuleok, horien artean, ahozko hizkuntzez jabetzeko gaitasuna dago, hau da, ahozkoa ulertzeko eta hitz egiteko gaitasunak garatzen ditugu; beraz, entzumenari esker, hitz egin eta entzundakoa uler dezakegu, funtzio horiek betetzeko gai gara. Entzumen galera duten pertsonen hizkuntzez jabetzeko bitarteko hori kaltetuta dute, ez dute ahozko hizkuntza (erabat) jasotzen, eta ondorioz, ez dira modu natural batean hizkuntzaz jabetzen eta hitz egiteko eta entzundakoa ulertzeko zailtasunak dituzte. Audifono eta inplanteak jartzean, entzuteko gaitasuna handitzen zaienez, hobekuntzak izaten dira funtzio horietan, baina kasu gehien-gehietan ez dute entzuleek duten maila funtzional bera lortzen.

“Cuando son hipoacústicos a veces te olvidas de que no oye. Cuantas menos dificultades tienen para comunicarse, te olvidas y le tratas como si fuera oyente, pero no es oyente, no es oyente, para nada. (...) Pero esa integración con los oyentes, como si fuera oyente, no, porque encima cuando él se dé cuenta de que no es así, se siente engañado.”

Gorrek entzuleen maila funtzional bera lortzen ez dutenez, eta horrenbestez, ume gorrek eskoletan ahozko hizkuntza bidez ematen diren edukiak jasotzeko zailtasun nabarmenak dituztenez, azken hamarkadan eduki horiek zeinu hizkuntza bidez jasotzea bultzatu izan da.

Gorrei zeinu hizkuntza irakastearen garrantziaz honela mintzatu da Cristina Díaz:

“Me parece imprescindible que él (Unai) aprenda y domine la lengua de signos, porque en realidad va a ser con el que más seguro va a estar. La oral tiene más o menos dificultad, pero no es la que a él le sale natural.(...) Además, aparte de ser un signo de identidad, para ellos es una herramienta...”

Hainbat ikerketak erakutsi izan dute ume gorren hezkuntzan zeinu hizkuntza erabiltzea onuragarria dela. Besteak beste, Miguel Ángel Verdugo adituak²⁹ baieztatzen du haur gorrek zeinu hizkuntzaren bitartez hizkuntza gaitasuna, komunikatzeko gaitasuna eta gaitasun kognitiboa barneratzen baditu, errazagoa izango dela hasierako gaitasun horren gainean bigarren hizkuntza gaitasun bat eraikitzea. Eta gaineratzen du zeinu hizkuntzaren bidez haur gorrek eskola curriculumak eskuratzeko tresna bat izango duela, eta beraz, entzuten duten ikaskideen antzera garatu ahal izango duela hura (Valmaseda in Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila, 2013:21).

Ume gorren hezkuntzan ahozko hizkuntzek eta zeinu hizkuntzek izan beharreko presentziari buruz honako hau esan du Cristina Díaz-ek:

“Una cosa es la lengua de signos que me parece muy importante para ellos. Pero también entiendo que la mayoría de los mortales, oyentes, no sabemos lengua de

²⁹ Besteak beste: Ezgaitasunaren Psikologiako katedraduna, Salamancako Unibertsitateko Komunitatean Integratzeko Unibertsitate Institutuko (INICO) zuzendaria eta Osasun, Gizarte Politika eta Berdintasuneko Ministerioiko ezgaitasunei buruzko Informazio zerbitzuko zuzendaria

signos. Igual que me parece muy importante la lengua de signos, pero cuanto mejor oralice más fácil va a ser para él (...) Es importante que los oyentes le puedan entender. (...) Para relacionarse entre ellos y sentirse que no eres el único del planeta, el raro, saber que hay una comunidad como tú, que comparte idioma, que comparte un montón de cosas, a mí (la lengua de signos) me parece fundamental. Y luego, para acceder al mundo de los oyentes también con esos intérpretes”.

Klara Bergiristain ere bat dator eta iritzi hau agertu du bi hizkuntzak ikastearen garrantziaz:

“...también deben conocer bien dos mundos oyente y sordos (...) Primero los niños sordos deben aprender su lengua de signos también castellano como dos lenguas paralelas de aprender a la vez con dos idiomas”.

Bestalde, hezkuntza oralistari buruzko behekoa adierazi du Iñaki Madinabeitiak:

“Umeari orala bakarrik ematen badiozu, horrekin bakarrik moldatu beharko du, eta horrek badu bere alde ona: ahozko hizkuntzan hobeto moldatuko da. Baina eskubide bat ere kentzen diozu.”

Legeei dagokienez, Espainiako legedian 1995etik lege alorreko erreferentziak daude ikasle gorrei buruz eta ikastetxeetan zeinu hizkuntzak erabiltzearen inguruan. Beste batzuen artean, apirilaren 28ko 696/1995 Erret Dekretuak, Hezkuntza premia bereziak dituzten ikasleen Hezkuntzaren Antolamenduari buruzkoak, jasotzen du Hezkuntza Administrazioak LSEaren aitorten legalaren alde egiteko beharra, bai eta administrazio horrek entzumen alorreko behar bereziak dituzten ikasleak dituzten ikastetxeetan LSEaren erabilera bultzatzeko premia ere (Lara; Martínez; Vega, 2007:146).

EAEn, 2000. urtean Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren bidez arautu zen ikasle gorrei eman beharreko erantzuna, Ikasle Gorren Lurralde arteko Hezkuntza Batzordeak idatzitako txosten baten bitartez. Saileko teknikariek nahiz hiru lurraldeetako familia elkarteek hartu zuten parte txosten horretan (Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila, 2013:22).

Gipuzkoan ume zein gazte gorrek jasotzen duten laguntza osagarri ia guztia, bai Aransgi elkartean jasotzen duten laguntza bai eskolan bertan jasotzen dutena, zeinu hizkuntzan izaten da. Kontuan hartu behar da, halere, horrelako beharrak dituzten haur eta gazteek aparteko laguntza behar izaten dutela idazmena, irakurmena, ezpainak irakurtzeko gaitasuna eta abar lantzeko, eta horretarako, zenbait unetan

zeinu hizkuntza alde batera utzi eta ahozko hizkuntza lantzen dute. Behean, *Ikasle gorren sarbidea hizkuntzen curriculumean. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza* lanean (Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila, 2013:19) arazo hauei buruzko testu zati bat jaso dut:

“Entzuten duen haurra irakurtzen ikasten hasten denean eskolan, milaka hitz sortzeko eta ulertzeko beharrezko hizkuntza-gaitasuna du jada, eta hitz horiekin osa daitezkeen esaldi gehienak ezagutzen ditu, egitura sintaktiko konplexuenak menperatu ez arren.

Azken hogeita hamar urteotako datuak ugariak izan dira, eta sistematikoki eta historikoki, haur gorrek irakurtzen eta idazten ikasteko prozesu mekanikoen ikaskuntzan zailtasunak izateaz gain, irakurtzeko orduan maila egokia eta funtzionala eskuratzeko arazoak erakutsi dituzte.

Alde horretatik, Gillot txostenak (1998) datu esanguratsua ematen du: pertsona gorren % 80 alfabetatugabe funtzionalak dira gaur eta baita duela mende bat ere, hau da, ez dute ulertzen irakurtzen duten hizkuntza.”

Gipuzkoako laguntza zerbitzuak ez ditu eskola ordu guztiak estaltzen, baliabideak ez baitira nahikoa, eta beraz, haur gorrek ordu batzuetan laguntzarik gabe egoten dira gelan. Horrek ekartzen du gorrek jasotzen duten hezkuntzaren kalitatea entzuleek jasotzen dutena baino eskasagoa izatea, izan ere, hezkuntza eredia ez dago haur gorrentzat prestaturik. Kasu askotan galdurik egoten dira gelan, esaterako, irakasleak bizkarra emanez hitz egiten duenean edo hitz egiten ari denari begiratu ezin diotenean (adibidez, irudi bati begira daudela irakasleak azalpenak ematen dituenean).

7.4. ZEINU HIZKUNTZA ETA EUSKARA

Behin baino gehiagotan azaldu dut dagoeneko txosten honetan ume gorrek zailtasunak izaten dituztela ahozko hizkuntzez jabetzeko eta ahozko hizkuntzetan emandako informazioa jasotzeko. Gipuzkoako hezkuntza sisteman bi hizkuntza ditugun aldetik, nola eragiten die horrek ume eta gazte gorrei? Elkarrizketetatik ondorioztatutakoaren arabera, bi hizkuntza izateak ez du eragin nabarmenik gorrengan, izan ere, euren hizkuntza beste bat da: zeinuena. Puntu honetan, Cristina Diaz-ek komentutakoa interesgarria da. Haien semeak, Unai, gaztelaniaz egin ditu orain arteko ikasketak

–DBHn dago orain–; 2012-13 ikasturtea, ostera, D ereduari ari da egiten, eta honako hau adierazi du Cristina Díaz-ek horri buruz:

“En la escuela muchas veces el problema que puede tener Unai por ejemplo, aparte de que las clases ahora se dan en euskera, aunque tampoco es el mayor problema, aunque fueran en castellano, el ritmo y esas clases cantadas, donde el profesor se da la vuelta, hay risas, ruidos, alrededor... pues muchas veces se pierde”.

Arangri elkartearen ere bat datoz horretan eta honako aipamen hau egin dute ereduari buruz:

“A ereduaren zegoenean, A ereduaren joaten zirenean, errazagoa zelakoan edo. Baina ez zirenean integratzen A ereduaren joanda eta zeinuen hizkuntzarik jakin gabe. Ahozko hizkuntza ulertzeko gaitasun mugatua dute oso. Eskoletan galduta egoten dira. Eskoletan irakasleak esaten duena ez dute jasotzen, inondik inora. Gauza bera pasa zaie Badajozen, Madrilan... Ahozko hizkuntzekin oso tratua eskasa dute”.

Hortik ondorioztatzen dugu, gorrentzat garrantzitsuena edukiak zeinu hizkuntzan jasotzea dela, eta ez hainbeste eskoletako ahozko hizkuntza zein den edo zein diren.

Gipuzkoan egun gurasoek erabakitzen dute, seme-alaba entzuleekin bezalaxe, seme-alaba gorrek zein ereduari ikasiko duten.

Gai honek hezkuntza alorrean duen eraginari buruz *Ikasle gorren sarbidea hizkuntzen curriculumean. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza* lanean (Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila, 2013:22) jasotakoa ekarri nahi izan dut hona:

“Batuetan, ikasle gorrek ahozko hizkuntza bat baino gehiago eskuratzea zailtasun osagarritzat hartzen da; hala ere, psikolinguistikaren ekarpenek erakutsi digute hizkuntza baten ikaskuntzak, kode berri baten ikaskuntzaz gain, beste kultura bat, munduaren beste ikuspegi bat, beste komunitate bat ezagutu beharra dakarrela. Alde horretatik, EAEko zentro gehienek errealitate eleanitzak eta hezkuntza-elkarteak eskola inklusibo baten alde egindako apustuak ikasle gorrek bi hizkuntza ofizialetan eskaintzen diren ikaskuntzetatik ez baztertzeko gomendatzen dute, izan ere, ikaskuntza bi hizkuntzatan jasoz gero, ikasle gorrek hizkuntza-gaitasuna hobetuko du. Toronton egindako eta Cummins-ek aipatutako ikerketen arabera, hizkuntzen artean ezagueren eta ikaskuntza-prozesuen transferentzia gertatzen da, eta lehen hizkuntzan irakurtzen eta idazten ikasteak beste hizkuntza batzuk ikasteko abantaila zehatzak sortzen ditu.”

7.5. ENTZULEAK ZEINUEN HIZKUNTZAK IKASTEN

CNSEren datuen arabera, egun 400.000 pertsonak erabiltzen du LSEa eta horietatik 100.000 dira gorrak. Azken hamarkadetan zeinu hizkuntzek prestigioa irabazi dute eta haien erabilera onartuta dago oro har. Horren ondorioz, gorrez eta haien ingurukoez aparte, bada beste jende multzo bat zeinu hizkuntzak ikasten ari dena: beste hizkuntza bat ikasi nahi duen jendea, hainbat arlotako profesionalak... Horietako asko irakaskuntzatik etorritakoak izaten dira –irakaskuntza ikasten ari direnak edo dagoeneko ikasketak amaitu dituztenak– eta ikasketak osatzeko edo lanerako laguntza osagarri moduan ikusten dute.

Aransgi-k Bergaran duen egoitzan urtero 50 lagunek hartzen dute parte bertan ematen diren ikastaro laburretan (30 ordu). Tolosan ere badago aukera zeinu hizkuntza ikasteko. Hiriburuetan aukera handiagoa izaten da; hala geratzen da Donostian ere. Ikastaro laburrez gain, erritmo desberdineko ikastaroak eskaintzen dira, 120 ordukoak izan ohi dira, 3 mailatan antolatuz. Ikastaro horiek Euskal Gorrak-ek antolatzen ditu eta CNSEk ziurpetu eta homologatzen ditu. Bestalde, ikastaro horiek Eusko Jaurlaritzaren homologazioa ere badute, eta horrez gainera, hezkuntzan lanean dabiltzan irakasleei birbaremazioetan meritu moduan puntuak zenbatzeko balio die.

Iker Amondarainek iritzi hau agertu du homologazio horien inguruan:

“Badago hor titulazio bat eman izan dena eta Eusko Jaurlaritzak puntuatzen eta baloratzen duena eta zeinu hizkuntzaren ezagutza ez duena inondik inora ere bermatzen. Hiru urteren ondoren titulu hori eduki dezakezu eta zeinuen hizkuntza ez ezagutu, eta titulu horrek ematen dizu eskumena gorrekin lan egiteko, homologatuta dago. Paradoxikoa dena da hiru urte horiek ematen dituztela gorren elkarteek eta gainera kexu dira zeinuen hizkuntzak hezkuntzan duen pobretasunaz”.

Zeinu Hizkuntzako Interpretaritzako Goia Mailako Zikloa jarri zen martxan Bilboko Botikazar Institutuan 2007-08 ikasturtean. Bertatik zeinu hizkuntzako interprete izateko prest dauden profesionalak irteten dira urtero; 2012-13an ikasturtean, adibidez, 9 ikaslek amaitu zituzten ikasketa horiek.

Ikasketa horiei dagokienez, gorren elkarteek unibertsitate mailako ikasketak izan daitezten eskatzen dute, unibertsitateek Itzulpengintza eta Interpretaritzako ikasketen barruan txerta ditzaten, modu horretan, zeinu hizkuntzen interpreteak eta ahozko hizkuntzen interpreteak maila berean egongo lirateke-eta (Lara; Martínez; Vega, 2007:148).

7.6. GURASOEN ETA GORREN ELKARTEAK

Gorren komunitatea bi elkarte motatan antolatzen da. Alde batean, ume gorren gurasoen elkarteak daude, eta beste aldean, gorren elkarteak. Gurasoen elkarteak izaten dira hezkuntza alorreko laguntza antolatzen dutenak; Gipuzkoan Aransgi elkarteak dugu. Elkarte horrek, Arabako ASPASOR elkarteak eta Bizkaiko Ulertuz-ek Pertsona Gorren Guraso eta Lagunen Elkarteen Euskal Federazioa (FEVAPAS) osatzen dute. Ume gorren gurasoen elkarten estatuko ordezkaria FIAPAS da.

Gorren elkarteei dagokienez, Gipuzkoan bi ditugu: Gipuzkoako Pertsona Gorren Elkarteak (GPGE) eta Gaintitzen. Hiru probintzietako elkarteek Euskal Gorrak osatzen dute. Gipuzkoan 256 bazkide dira. Gorrek beste gor batzuekin elkartzeko dituzten guneak dira gorren elkarteak, bertan zeinuen hizkuntzan aritzeko aukera dute. Elkarte horietan gorren kultura sustatzen da, informazio trukerako gune garrantzitsua dira eta zenbait zerbitzu ere eskaintzen dituzte. Horrez gainera, sentsibilizazio soziala ere sustatzen dute.

Gorren elkarteak federazioetan antolatzen dira. Federazioak gorren elkarten ahotsa dira erkidegoetan eta gorren komunitatea ordezkatzeko erakunde publiko eta pribatuen aurrean.

Gurasoen elkarten eta gorren elkarten arteko harremanak ez dira onak izaten. Horren erakusgarri da 2004an FIAPASek Aransgi elkarteak erakundetik kanporatu izana, erakundeko estatutuak betetzen ez zituztela argudiatuta. Horren atzean dagoen arazoa da Aransgi-k gorren elkarteekin elkarlanean funtzionatzen duela eta FIAPASek

ez du hori onartzen, izan ere, gorren elkarteekin harreman ofizialak dituzten elkarteak ezin dira FIAPASen egon, eta hala dago jasota estatutueta 14. artikuluan.

Hasiera batean ez da erraza ulertzea harreman txar horien zergatia. Azken batean ume gor horiek nagusitu egingo dira eta gorren elkarteetara joango dira heltzean. Gor nortasunari buruzko atalean azaldu dut gor izatea zer den ulertzeko bi ikuspegi nagusi daudela. Baliteke eramanezin horren atzean banaketa hori egotea, hau da, gurasoek gortasuna alde patologikotik soilik ikustea eta gorrek haien kultura eta historiaren aintzatespena aldarrikatzea.

Iker Amondarainek ikuspegi hau du ezin-eraman horri buruz:

“Gipuzkoan gurasoen elkarteari leporatzen zaiona da ahozko hezkuntza soilik bultzatu izana. Hori garai batean hala zen, duela 25-30 urte. Baina hori hala zen hemen eta mundu guztian. Hemen konturatuta zeuden (duela 25-30 urte) zeinu hizkuntzaren onuraz eta hasieran modu klantestinoan haren alde egin zuten, eta poliki-poliki sartzen hasi ziren. Eta gor batzuk horrekin jarraitzen dute”.

Klara Begiristainek honako hau esan du gurasoen eta gorren elkarten inguruan: *“No tienen relación es una pena cada uno hace lo que da la gana sin la unión de estas asociaciones además la comunidad sorda es pequeña pero están divididos”*.

Aransgi ez zen FIAPASetik kanporatu zuten bakarra, baina Iñaki Madinabeitiak azaldutakoaren arabera, gutxi dira gorren elkarteekin harremanak dituzte gurasoen elkarteak. Aransgi elkartetik kontatutakoaren arabera, kontuan hartu behar da Aransgi-n porrot batetik datozela, ez omen zien-eta funtzionatu, euren hitzetan, gorrek entzule bihurtzea. Elkartekoen hitzetan, komunitate izatearen kontzientziaren kontua nahiko berria da eta Aransgi elkartean badauzkate programak hori berori lantzeko, talde kontzientzia hori suspertzen saiatzen omen dira, eta haien esanetan, dagoeneko onartuta daukate elkartean horrek horrela izan behar duela.

7.7. INTERPRETARITZA ZERBITZUA

Zeinu hizkuntzako interpreteek informazioa zeinu hizkuntzatik ahozko hizkuntzara, eta alderantziz, interpretatu eta itzultzen dute, gorren eta beren inguruaren arteko komunikazioa eta informazio irisgarritasuna bermatzeko³⁰.

Interpretaritza zerbitzuak hainbat alorretan behar izaten dituzte gorrek: alor profesionalean, pertsonalean, erlijiosoan, osasun arloan, familiarekin loturikoetan (herentziak, abokatuak...) eta abar.

Iker Amondarainek honela laburbiltzen du interpretaritza zerbitzua: “EAEn interprete bat behar duen pertsona gorrak edo erakundeak (Fagor, Gureak...) bi aukera dauzka: batetik, Euskal Gorrak-era³¹ jo dezake, eta bestetik, bere kabuz bila dezake interprete bat bere poltsikotik edo enpresak berak ordainduta”. Euskal Gorrak-ek kudeatzen duen zerbitzuaren ordutegia honako hau da: astelehenetik ostiralera 08:00etatik 20:00era³². Eta horrenbestez, ordutegi horretatik kanpo gorrek ez dute aukerarik doako interpretaritza zerbitzu bat jasotzeko.

Gorrek gestio pertsonaletarako dituzten beharrak estaltzen ditu oro har zerbitzu publiko horrek: mediku eta ospitaleko azterketak, lan eta lantokien bilaketa aktiboa, profesional ezberdinengana zuzendutako informazio-eskaerak, Justizia Epaitegietako eta Aholkularitza Juridikoetako eginbideak, izapideak eta bestelakoak (Euskal Gorrak, 2012:7). Interpretaritza zerbitzu horrek zerbitzu moten arabera mugak ere baditu. Iker Amondarainek kontatutakoaren arabera, adibidez, enpresa pribatu batek interprete bat behar baldin badu eta Euskal Gorrak-engana jotzen badu, Euskal Gorrak-ek kobratu egingo dio. Bere esanetan, ordutegi eta zerbitzu motak jarritako mugez aparte, zerbitzu hori eskaintzeko dagoen interprete kopurua ere beste muga bat da, kopurua oso txikia da-eta.

Euskal Gorrak-ek hitzarmen bat dauka sinatuta Eusko Jaurlaritzako Herrizaingo, Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailarekin, eta bertan zehaztutakoaren arabera, Euskal

³⁰ Iturria: http://www.cnse.es/actuacion/accesibilidad_info.html

³¹ Euska Gorrak-ek kudeatzen du gorrentzako interpretaritza zerbitzu publikoa EAEn.

³² Iturria: <http://www.euskal-gorrek.org/interpretesEu.html>

Gorrek erakundea arduratzen da interprete zerbitzua kudeatzeaz. Une honetan interprete bat dago Gipuzkoan eta bina Araban eta Bizkaian. Gipuzkoa osorako interprete bakarra izateak ez dirudi nahikoa gor guztien beharrei erantzuteko. Hona hemen Iker Amondarainek emandako iritzia:

“Probintzia osoan zerbitzua ematea ez da posible, (...) Donostiak bakarrik interprete bat beharko luke. Zerbitzu hauek hiriburuetan egoten dira. Lehentasunak elkarteak berak jartzen ditu; ekonomikoki garestiagoa da interprete bat bidaltzea Oñatira, Legazpira, Eskoriatzara... Baina noski Oñatiko, Legazpiko edo Eskoriatzako pertsona gorrek Donostiakoak duen eskubide berberak ditu. Hor kontraesana dago”.

Klara Begiristainek honako hau adierazi du interprete zerbitzuaren kalitateaz eta zerbitzu horrengan krisiak izan duen eraginaz:

“Hasta ahora si tiene muchos problemas con la interprete porque antes había 3 interpretes para los gipuzkoanos ahora solamente hay una interprete para 230 socios de asociación de personas sordas de Gipuzkoa en Donosti, muchas veces he pedido a la interprete pero estaba ocupada debido con las recortes menos servicios de interprete”.

Interpete zerbitzuak dituen mugak ikusita, interprete zerbitzu baten beharra dutenean zerbitzu pribatuetara jo behar izaten dute gorrek zenbaitetan eta euren aldetik ordaindu. Muga horiei buruz honela mintzatu da Cristina Díaz:

“Unai al médico y todo va conmigo, pero en cuestión de nada igual quiere ir solo (...) Que vayas a cualquier conferencia, que puedas ir a cualquier presentación de cualquier cosa, te quedas out. En ese aspecto no tienen nada”.

Interpretaritza zerbitzuak izandako bilakaera aztertzeko, Euskal Gorrek-en 2010eko eta 2012ko txostenak konpara ditzakegu. 2010. urtean zehar erakunde horrek 3.122 interpretazio zerbitzu kudeatu zituen Erkidegoko hiru lurraldeetan; 2012an, berriz, 2.268. la mila gutxiago izan ziren. Behean bi urte horietan Gipuzkoan eskatutako zerbitzuak, emandakoak eta ukatutakoak ageri dira hilez hile:

2010 urtea

GIPUZKOA				
HILA	GIPUZK.	ESKAERA GUZTIRA	EGINDAKOAK GUZTIRA	UKATU- TAKOAK
URTARRILA	77	77	76	1
OTSAILA	85	85	83	2
MARTXOA	67	67	62	5
APIRILA	76	76	74	2
MAIATZA	87	87	85	2
EKAINA	45	45	45	0
UZTAILA	64	64	64	0
ABUZTUA	38	38	38	0
IRAILA	77	77	77	0
URRIA	75	75	65	10
AZAROA	82	82	80	2
ABENDUA	45	45	41	4
GUZTIRA	818	818	790	28

(Iturria: Euskal Gorrak-en memoria, 2010: 4)

2012 urtea

HILABETEA	Pertsona GORRA		Pertsona GOR-ITSUA		ERABILTZAIL- GUZTIRA	ESKAERAK GUZTIRA	EGINDAKOAK GUZTIRA	UKATUAK
	Gizonez.	Emaku.	Gizonez.	Emaku.				
URTARRILA	8	13	1	1	23	44	39	5
OTSAILA	11	10	1	0	22	56	47	9
MARTXOA	11	15	1	0	27	62	53	9
APIRILA	6	9	1	1	17	36	30	6
MAIATZA	9	11	1	0	21	52	41	11
EKAINA	7	7	1	0	15	44	35	9
UZTAILA	7	7	2	0	32	32	28	4
ABUZTUA	2	3	0	0	5	10	6	4
IRAILA	7	13	0	0	20	45	37	8
URRIA	15	10	1	1	27	56	46	10
AZAROA	15	11	0	0	26	43	37	6
ABENDUA	16	10	1	0	27	31	28	3
GUZTIRA	114	119	10	3	262	511	427	84

(Iturria: Euskal Gorrak-en memoria, 2012: 9)

Datuak nahiko argigarriak dira: 2010ean eskaeren % 3 ukatu zen; 2012an, aldiz, % 16. Ukatutako eskaeren kopurua hirukoiztu egin da bi urtetan, eskaeren kopuruak nabarmen behera egin badu ere: 2012an eskaera kopuruak % 37,5 egin zuen behera. Ondorio nagusia da 2010ean emandako interpretaritzaz zerbitzuen kopurua (790) ia erdira jaitsi zela 2012an (427).

Krisiaren eraginari buruz honako hau esan du Iker Amondarainek:

“...enpresek ez dute dirurik interpretea ordaintzeko asanblada baterako. Gorrek eurek ere langabezia tasa handiagoak dituzte eta beraz bide pribatutik interpreteak kontratatzeko aukera gutxi dituzte”.

7.8. ZEINU HIZKUNTZA ZERBITZU PUBLIKOETAN

Zeinu hizkuntzak ez dute ia lekurik administrazio publikoko zerbitzuetan eta hori dela medio gorrek askotan familia zein lagunen laguntza behar dute administrazio publikoarekin izan beharreko harremanetan. Euskal Gorrak-en zerbitzua hor dago, baina esan bezala ez da beti eskaera guztiak estaltzera heltzen. Gainera, larrialdi bat izanez gero, ezin duzu zerbitzu horretara jo, aurrez abisatu beharra baitago.

Justizia alorrari dagokionez, 2002ko apirilean Herritarrek Justiziaren aurrean dituzten Eskubideen Gutuna onartu zuten Diputatuen Kongresuan eta bertan testu hau ageri da du hitzez hitz³³:

“Gor nahiz mutua den herritarrak eta gutxi ikusten duenak edo itsua denak eskubidea dute zeinu-interpretatzaile bat erabiltzeko, bai eta bestelako baliabide teknologikoak ere, eskatutako informazioa modu ulergarrian eskuratzen eta komunikazio-egintzak eta parte hartzen duen bestelako prozesu-jardunak behar bezala gauzatzen laguntzen badute.

- Bideo-testuak, testu-telefonoak, dokumentuak brailera itzultzeko sistema, soinu-zko grabazioak edo antzeko baliabide teknikoak erabiltzea sustatuko da.
- Arreta bereziarekin egiaztatuko da hartzaileak komunikazio-egintzaren berri benetan izan duen, eta, behar izanez gero, egintzaren edukia ozenki irakurriko da.” (Herritarrek Justiziaren aurrean dituzten Eskubideen Gutuna, 2002:6)

Horrenbestez, Justizia Administrazioak zeinu interprete bat izateko eskubidea aitortzen die gorrei. Dena den, badirudi zerbitzu horrek badituela zenbait gabezia, izan ere, Iker Amondarainek ondokoa azaldu du horri buruz:

“Larrialdi zerbitzu bat dago alor juridikorako, oso gaizki funtzionatzen duena, tarifa eskasetan gainera. Kanpoko enpresa batek kudeatzen du, (...) tarifak eskasak dira eta kalitatea ere bai”.

Gainerakoan, administrazio-ko beste egoitzetan —ospitale eta osasun etxeetan, ogasuneko bulegoetan, udaletxeetan...— ez dago inolako irisgarritasun neurririk aurreikusirik. Azken batean, Euskal Gorrak-ek kudeatzen duen zerbitzu horrek estali beharko lituzke behar hauek, baina ikusi dugun bezala, zerbitzuak muga nabariak ditu.

Esan bezala, askotan senideen laguntza izaten dute, baina agerikoa denez kasu batzuetan ez da egokia senideen funtzio horiek betetzea, adibidez, osasun alorreko zenbait gairekin, epaiketa batean, banatze kasu batean, herentziak tartean daudenean... Horrelakoetan, interprete pribatuak kontratatu behar izaten dituzte eta beren hizkuntza eskubideak urratzen dira. Iker Amondarainek esandakoaren arabera, interprete pribatu baten zerbitzuak kontratatzea orduko 40-45 € artean kostatzen da.

³³ Iturria: <http://www.justizia.net/betebeharrak-eta-eskubideak/herritarrek-justiziaren-aurrean-dituzten-eskubideen-gutuna>

7.9. LAN ARLOA

CNSEko Enplegu Batzordea 1997an jarri zen martxan eta egindako lehen lanetako bat Pertsona Gorrentzako lehen Enplegu Plana diseinatzea izan zen. Horren ondorioz, CNSEko Enplegu Sarea abiarazi zen. Sare hori Konfederazioko Enplegu Zerbitzu Zentralek koordinatzen dute, autonomia erkidegoetako gorren elkarteek kudeatu eta pertsona gorrentzako lan bitartekaritzako zerbitzuez (PGLBZ)³⁴ bidez ematen da zuzeneko zerbitzua. Azken hauen egitekoa honako hau da: gorren kontratazioa bideratzea, aholkularitza, informazioa eta formazio emanez, bai eta bitartekaritza lana eginez ere enpresekin, beste erakunde batzuekin eta sindikatuekin³⁵.

Euskal Autonomia Erkidegoaren alorrean, Euskal Gorra-ek kudeatzen du sare hau "Abian" izeneko zerbitzuaren bitartez. Abian 2008an jarri zen martxan eta helburuak ziren, batetik, Euskal Autonomia Erkidegoko PGLBZk koordinatzea, eta bestetik, hiru lurraldeetarako enplegu sare bat sortzea.

Pertsona gorrak ezgaitasunen bat duten pertsonen talde barruan sartzeko direnez, legeak babestu egiten ditu lan arloan, besteak beste, administrazio publikoko lanpostuen alorrean: 7/2007 Legearen, apirilaren 12koaren, 59. artikuluan xedatutakoaren arabera, Administrazio Publikorako ateratzen diren plaza hutsen % 7 ezgaitasunen bat duten pertsonentzat utzi behar dira. Horrelako plazak hartu ahal izateko gorrek ezgaitasun hori behar bezala egiaztatu behar dute.

Arlo pribatura etorrita, Arangri elkartetik emandako informazioaren arabera, lanean hasten diren gorren % 90 inguru enpresa babestuetan sartzeko dira, gainerako % 10a³⁶ enpresa pribatuan: kooperatiban, familia enpresetan eta bestelakoetan.

Enpresa babestuei dagokienez, Gipuzkoan Gureak eta Katealegiaia ditugu. GUREAK enpresa taldeak ezintasunak dituzten pertsonak gizarteratzea du helburu, eta asmo horrekin, lan arloan pertsona horiei aukerak zabaltzeko egiten du lan. Industria alorrean eta zerbitzuetan jarduten dute, eta taldeko enpresetan ezgaitasunak dituzten

³⁴ Gaztelaniaz: SILPES-Servicio de Intermediación Laboral para Personas Sordas

³⁵ Iturria: http://www.cnse.es/actuacion/formacion_empleo.html

³⁶ Ehuneko hauek egiaztatu gabe daude

pertsoneri lana emateaz gain, beste zerbitzu batzuen artean, enpresei aholkularitza ematen die ezgaitasunen bat duten pertsonak hartzeko garaian. Araban eta Nafarroan ere egon arren, Gipuzkoan ematen du lan gehien eta bertan ditu lantegi gehienak³⁷. Behean Gureak-en 2010ean ezgaitasun motaren arabera langileak nola banatzen ziren ikus dezakegu³⁸:



(Iturria: <http://www.grupogureak.com/eu/buruz/gureak-datuak.aspx>)

Entzumen urritasuna duten pertsoneri lan arloan sartzen laguntzen dien beste erakunde bat Katealegia da. Irabazi asmorik gabeko erakundea da eta egun 800 langile ingururi ematen die lana, horietatik % 95ek baino gehiagok ezgaitasunen bat du. Erakundeak 12 tailer dauzka, guztiak Gipuzkoan eta industria alorreko jarduerak gauzatzen ditu³⁹.

Puntu honetan aipatu beharra dago gorren kolektiboak enpresa babestuetan lan egin beharrarekin ez dagoela oso gustura zenbait kasutan. Haien ikuspuntutik entzuleek bezala egiten dute lan eta ez lukete soldata baxuagorik izan behar gor izate hutsagatik. Askotan, lan babestuak baino lanpostu “normalak” nahiago izaten dituzte. Aransgi elkartekoen hitzetan, enpresa hauek prentsa txarra dute. Iker Amondarainen hitzetan ere: “haiei (gorrei) ez zaie batere gustatzen, oso gai baitira edozein lan egiteko, baina gizarteak horretara bideratzen ditu”.

Komeni da hemen aipatzea 13/1982 Legeak, Minusbaliatuak Gizarteratzekoak, ezartzen duela 50 langile baino gehiagoko enpresa publiko eta pribatuetako langile kontratatuen % 2k, gutxienez, ezgaitasunen bat izan behar dutela. Dena den, arau hori betetzea derrigorrezkoa ez den zenbait salbuespen ere badaude.

³⁷ Iturria: <http://www.grupogureak.com/default.aspx>

³⁸ Entzumen urritasuna duten pertsonak zentzumen ezgaitasunak dituztenen multzoan sartzen dira.

³⁹ Iturria: http://www.grupokl.com/02eusk/04recur_ca.html

Bestalde, enpresek % 33ko ezgaitasuna edo handiagoa duten pertsonak kontratatzeagatik hobariak izaten dituzte enpresa kuotetan zein sozietate zergan, eta diru-laguntzak ere jasotzen dituzte.

Iker Amondarainek ondoko banaketa hau egin zuen enpresa handi eta txikien artean:

“Enpresa handiek beste sentzibilitate bat daukate, ekonomikoki beste aukera bat, baina enpresa txikiek gor bat kontratatzea planteatzen dutenean (honek lana berdin egingo du edo ez, interprete bat ordaindu behar diot, formakuntzetan oztupo bat izango dut...), askotan alboratuak izaten dira”.

Aransgi-koek azaldutakoaren arabera, 70eko hamarkadatik eta 2000ra arte urte oparoak izan dira lan arloan: “Lana guztiontzat egon da”. Modu horretan, entzuleek bezalako bizimodua egiteko aukera izan omen dute gorrek: soldata jasotzen zuten, etxe bat erosteko ahalmena zuten, familia bat izatekoa... Aransgi-ko Bergarako egoitzako zuzendariaren hitzetan, bizi kalitate estandarra izan zuten gorrek, baina krisia etortzearekin bat egoera hori aldatu egin da. Langabeziak gora egin du eta kolektibo honek ere nabaritu ditu ondorioak. Gainera, kontuan hartu behar da gorrek langabezia tasa altuagoak izaten dituztela.

7.10. ZEINU HIZKUNTZEN LEGE BABESA | ERROR! MARCADOR NO DEFINIDO.

Diputatuen Kongresuan aho batez onartu zuten 2007ko ekainean zeinu hizkuntzen onarpen legala, eta beraz, Espainiako zeinu hizkuntzei izaera ofiziala eman zitzaien. 27/2007 Legearen bidez, gorren, entzumen urritasuna dutenen eta gor-itsuen ahozko komunikaziorako laguntza bitartekoak arautzen dira. Legeztapen hori historikoa izan zen estatuko gorren komunitatearentzat, urte askotako eskaera izan baita; zeinuen hizkuntzak aitortzeaz gain, gorren kultura, historia eta ohiturak ere aitortzen ditu.

Lege horren bidez, hezkuntza alorrean Espainiako zeinu hizkuntzaren eta Kataluniakoaren erabilera arautu eta besteak beste honako hauek jaso zituen:

gorrentzako irisgarritasuna ziurtatzeko betebeharra erakundeek emandako informazioetan zein doako hedabideetan, bai eta izaera publikoko bilera, jardunaldi, mintegi eta abarretan nahiz izaera publikoko webguneetan ere. Horrez gainera, Espainiako Zeinu Hizkuntzaren Normalizazio Linguistikorako Zentro baten sorrera arautu zuen, Espainiako zeinu hizkuntzak ikertu, sustatu, zabaldu eta horien erabilera ona zaintzeko⁴⁰.

Kataluniako Parlamentuak 1994an LSCaren ezagutza sustatu eta zabaltzeari buruzko legez besteko proposamen bat egin zuen; estatuko lehen autonomia erkidegoa izan zen hori egiten. Horrez gainera, 2010eko maiatzean Kataluniako Parlamentuak aho batez onartu zuen Kataluniako zeinu hizkuntzaren (LSC) Legea. EAEn ez da oraindik onartu LSEaren ofizialtasuna. Puntu honetan aipatu beharra dago EAEn eta Nafarroan LSEa erabiltzen dela eta Iparraldean LSFa.

7.11. AISIALDIAjERROR! MARCADOR NO DEFINIDO.

Gorrek entzuteko arazoak dituztenez, musika eta kontzertuak ez dituzte gustuko. Irakurketarako zailtasunak dituzte, izan ere, ahozko hizkuntza ez baita naturala haientzat eta ez omen dute gozaten. Azpitoluekin aukera handiak dituzte ikus entzunezko materialez gozatzeko, eta DVDek bide berriak zabaldu dituzte. Dena den, esan beharra dago muga nabarmenak dituztela ikus-entzunezko arloan ere, esaterako, zinemara joaten badira, azpitolurik gabe ez dute filma ulertzen.

Gorren komunitatean kultura alorra bultzatzeko, bi bide lantzen dira: batetik, ekimenak antolatzen dira gainerako herritarren eskura dauden ondare kulturalerako sarbidea errazteko, eta bestetik, gorren komunitateko kultura adierazpenak sustatzen dira.

⁴⁰ Iturria: http://www.cnse.es/lengua_signos/reco_sign_espa.html

Lehen bide hori lantzeaz GPGE arduratzen da Gipuzkoan. Entzuleentzat antolatutako ekimen askotan gorrek ezin izaten dute parte hartu entzumen gabezia dela medio. Hori dela eta, elkartean gorrentzako egokitutako ekimenak antolatzen dituzte.

Elkartetik helarazitako informazioaren arabera, besteak beste, eta kolektibo honek bizi duen informazio gabeziako egoerari aurre egiteko, gaurkotasuneko gaiei buruzko hitzaldiak antolatzen dituzte. Hiztegia lantzeko ikastaroak ere antolatu izan dituzte, askotan entzun baina ulertzen ez dituzten kontzeptuak ikasteko. Maila ezberdinetako informatika ikastaroak ere antolatu izan dituzte.

Horrez gainera, irteera kulturalak antolatzen dituzte Euskadiko bazter desberdinetara, museoetara esaterako, eta zeinu hizkuntzako interprete bat eramaten dute beti. Noizean behin, gorren beste elkarte batzuekin antolatzen dituzte ekimenak: bidaiak, mendi-ibiliak, mus txapelketak...

Gorrek gutxi izaten direnez eta sakabanaturik bizi direnez, oso normala da gorren lagunarteak eremu geografiko handia hartzea. Aransgi elkartetik jasotako informazioaren arabera, Gipuzkoako gorrek Iparraldekoekin ibiltzea oso normala omen da, bai eta Zaragozakoekin eta abarrekin ere.

Ume eta gazteen aisialdiari dagokionez, aipatzekoak da FEVAPASEk antolatzen duen aisialdi eskaintza: udalekuak, irteerak, ekintzak... 18 urtez azpikoentzat antolatzen dute eskaintza hori guztia. Adin horretatik aurrera gorrek euren aisialdia nahierara antolatzen dute.

Arlo kultureko gertaera garrantzitsu bat Gipuzkoako Pertsona Gorren Topaketa izaten da. 2013an bigarren aldiz ospatuko dute. Denetarik antolatzen da egun horretarako: jolasak, marrazketa lehiaketak, herri bazkaria, hitzaldiak, antzerkia... Guztia pertsona gor boluntarioek antolatzen dute.

Bigarren bidearekin loturik, eta kulturgintzari buruz ari garela, ezin aipatu gabe utzi 2009an sortutako *Manos k Rien* antzerki taldeak egiten duen lana. Irabazi asmorik gabeko erakunde honek Donostian du egoitza eta euren helburuak honako hauek dira:

gorren eta entzuleen lan artistiko-kulturala eta integrazioa, zeinu hizkuntza eta gorren komunitatearen kultura zabaltzea eta gorren zein entzuleen arteko kultura ekimenak sustatzea. Askotariko gauzak egiten dituzte: antzezlanak, pintura, eskulanak, malabarismoa, zinema...⁴¹

Manos k Rien taldeak antolatuta, 2013an Zeinu Hizkuntzen II. Arte Jaialdia ospatuko dute Donostian. Film laburren lehiaketa bat egingo da eta ikuskizunak, mimoa, abestiak, poesia eta abar ere egongo da ikusgai. Helburua da egiten den lanaren aitortzarako leku bat egotea eta gorren komunitateak ekimen kulturaletan parte hartzeko dituen aukerak zabaltzea⁴².

Euskal Gorrak, bertako arduradunek azaldu digutenez, ekitaldi informatibo eta parte-hartzaileak antolatzeaz arduratzen da batez ere: Emakume Gorren Jardunaldiak, Familia Gorren Jardunaldiak, Elkarte-Sarearen Foroa... Dena den, Euskal Gorrak osatzen duten gorren elkarteei laguntza ematen die antolatzen dituzten ekitaldietan: finantzaketa bilatzen, antolakuntzan lankidetzan arituz...

7.12. TEKNOLOGIA BERRIAK

Teknologia berriek eragin handia izan dute gorren komunitatean, haien artean komunikatzeko bide berriak zabaldu baitizkie. Lehenengo iraultza Internet izan zen. Interneten era guztietako informazioa dute eskuragarri.

Horrez gainera, kontuan hartu behar da Internet-a gure etxeetara heldu baino lehen gorrek ez zutela unean uneko komunikaziorako inolako sistemarik, horrek oztopo nabarmenak ezartzen zizkien, bai eta intimitate gabezia ere. Horri buruz honako hau azaldu du Cristina Díaz-ek:

“Antes si tú eras mi hija sorda ‘llámale a fulanita` y la otra con la madre de la otra ‘Que ha dicho Miren a ver si...’. Imagínate que conversación! Qué intimidación!”

⁴¹ Iturria: <http://manoskrien.blogspot.com.es/p/junta-d.html>

⁴² Iturria: http://manoskrien.blogspot.com.es/p/festival_24.html

Horrenbestez, telefono dei bat egiteko, lehen gor batek beste pertsona bati eskatu behar izaten zion beste gor baten etxera deitzeko eta gorra ez beste pertsona bati eskatzeko gorrari mezu bat pasatzeko.

Ondoren, mugikorrek etorri ziren, eta mezu bidezko komunikazioa ere oso baliagarri izan zitzairen. Egungo telefono adimendunekin aukera hori biderkatu egin da aldi berean pertsona desberdinekin hitz egiteko aukera ematen dutelako. Idatzizko kodea alde batera utzita, egungo teknologiek irudia transmititzeko aukera ere ematen dute (bideokonferentziak, Youtube...), eta modu horretan, haien hizkuntzan, zeinu hizkuntzan, komunikatzeko aukera ere badute.

Horren inguruan honako hau kontatu zuen Klara Begiristainek: *“Si ha tenido muchos cambios gracias a estas nuevas tecnologías así mucho mejor para los sordos con la comunicación más autonomía mas información que antes”*.

7.13. HEDABIDEAK

Gorrek informazioa eskuratzeko eta komunikatzeko oztopoak izaten dituzte egunero, eta horien ondorioz, zailtasunak izaten dituzten hainbat alorretan parte hartzeko. Hedabideetako irisgarritasunari dagokionez, ikus-entzunezko alorrean asko dago egiteko.

Gorrentzat telebista irisgarri egiteko hiru aukera ditugu egun: zeinu hizkuntzan egindako programazioa, zeinu hizkuntzara itzulitako programazioa eta azpituduluak.

LSEko erabiltzaileek bi telebista saio dituzte haien hizkuntzan: *En otras palabras* (TVEko bigarren katea) eta *Telesigno* (Canal Sur). Horrez gainera, Espainian honako kate hauek azpitudulatutako programazioa eskaintzen dute: TVE, ANTENA 3, TELE CINCO, CANAL SUR⁴³. Aransgi-koen hitzetan, Euskal Telebistak oso programazio gutxi du azpitudulatuta, baina baieztapen hori egiaztatzerik ez dut izan.

⁴³ Iturria: <http://www.valinet.org/apartado.php?idApartado=44>

Zeinu hizkuntzara itzultako programak urriak dira oso. Arlo honetan, aipatzekoa da 2002tik nazioaren egoerari buruzko debatea zeinu hizkuntzara interpretatzen dela zuzenean.

Idatzizkoari dagokionez, 2004an *Diariosigno* egunkaria sortu zen. Gorren komunitateari buruzko albiste espezifikoak eta berri orokorrak jasotzen ditu eta Internet bidez zabaltzen dute gaztelania idatzian eta LSEan. Era berean, www.zeinu.tv atarian gaurkotasuneko albisteak jasotzeko aukera dute gorrek, gaztelaniaz, euskaraz eta LSEan. *Diariosigno*-k bezala, albiste orokorrak eta gorren komunitateari loturikoak biltzen ditu atari horrek.

7.14. AMIA MATRIZEA

Gipuzkoako gorren komuniteari buruzko informazioa bildu eta deskribatu ondoren, egoki iritzi diot egun lurralde historiko horretan gorrek bizi duten egoeraren alde positiboak zein negatiboak jasotzeari, eta horretarako, AMIA matrize bat osatu dut:

AUKERA	MEHATXUA
<ul style="list-style-type: none"> - gutxiengoekiko gero eta sentsibiltate handiago - ikuspegi aldaketa komunitate zientifikoan - teknologia berriak <ul style="list-style-type: none"> - mugikorrak, tabletak, Inernet... - audifonoak, inplanteak - hizkuntza ofiziala 	<ul style="list-style-type: none"> - gizartearen ezezagutza - krisia: diru publikoko finantzaketaren murrizketa, langabezia - zenbait profesionalen jokaera - irisgarritasun eskasa: parte-hartzeko bitarteko eskasak
INDARGUNEAK	AHULGUNEAK
<ul style="list-style-type: none"> - desagertzeko arriskurik ez - hezkuntza arloko hobekuntzak - gorren harrotasuna haziz - enpresa babestuak 	<ul style="list-style-type: none"> - komunitate txikia, erabakiguneetan egoteko ez nahikoa - transmisioa ahula halabeharrez - kode idatzirik ez - hezkuntza eredu gurasoen esku - interprete zerbitzua ez da nahikoa - legea bai, baina garatu gabe - gorren eta gurasoen elkarten arteko harreman eskasa (Gipuzkoa salbuespena)

Aukerei dagokienez, esango nuke gizartean gero eta sentsibiltate handiagoa dagoela gutxiengoekiko: gay, lesbiana eta transexualak; immigranteak; ezintasun fisiko eta psikikoak dituzten pertsonak... Horrekin ez dut esan nahi sentsibiltate maila nahikoa denik, ezta gutxiago ere. Baina uste dut esan daitekeela, hanka sartzeko arrisku handiegirik gabe, egungo gizartea oro har duela 50 urtekoa baino irekiagoa dela eta gutxiengoak errespetu handiagoz tratatzen dituela.

Horrez gainera, esango nuke komunitate zientifikoan izandako ikuspegi aldaketa ere aukera bat dela komunitate honentzat. Batetik, hizkuntzalari gehienek onartzen dute zeinu hizkuntzak hizkuntza naturalak direla eta ahozko hizkuntzek dituzten ezaugarri guztiak dituztela. Urteetan gutxietsiak eta baztertuak izan ondoren, zeinu hizkuntzak

hizkuntza oso direla onartzen da egun, eta horrek prestijiatu egiten du bai hizkuntza bera bai hura erabiltzen duen komunitatea ere. Bestetik, ume gorrak zer-nolako hezkuntza jasoko duen erabakitzeko garaian alorreko profesionalek ikuspegi zabalago bat dute egun. Salbuespenak ere badauden arren, oro har profesional horien helburua ez da izaten ume gorrak entzule edo entzuleen ahalik eta antzekoen bihurtzea, baizik eta ume horien garapenerako egokienak izango diren baliabideen berri ematea familiei.

Teknologia aurrerapenen alorrean, batetik, mugikorrek, Internet-ek eta abarrek ekarritako iraultza aipatu beharra dago, gorren arteko komunikazioa ikaragarri erraztu dute-eta. Bestetik, audifono eta inplanteak ere aipatu beharrekoak dira. Gailu horiek ez dituzte emaitza berak ematen pertsona guztiengan eta gor guztien entzumena ez da maila berean hobetzen. Dena den, entzumen hondarrak dituzten gorrei euren entzumen funtzioak hobetzeko aukera ematen die, eta alde horretatik, ingurunearekin elkarreragin ahal izateko aukera gehiago dituzte. Hala ere, argi utzi behar da gailu hauek gorren entzuteko ahalmena hobetu badezakete ere, ez dutela gaur-gaurkoz gorra entzule bihurtzen.

Azkenik, hizkuntzaren ofizialtasuna ere hor dago. 2007an onartu ziren Espainiako eta Kataluniako zeinu hizkuntzak hizkuntza ofizial gisa Espainian. Izendapen horrek bide asko zabaltzen ditu, izan ere, ofizial izate hori tresna garrantzitsua da erakunde publiko eta pribatuei informazioa zeinu hizkuntzan ere eman behar dela eskatzeko garaian.

Mehatxuetara etorrita, aipatu beharreko lehenengoa gizartearen ezezagutza dela esango nuke. Komunitate txikia izanik, jende gehienak ez du harremanik izan –hurbileko harremanik behintzat– gorrekin edo gorren komunitatearekin, eta horrek ikusezin egiten ditu askotan. Jakina denez, ikusten ez dena, praktikan ez da existitzen, eta horrenbestez, gizartea ez da ohartzen komunitate honek dituen beharrez eta oztopoez. Ezezagutza horrek gorren komunitatearekiko aurreiritzi pila bat dakartza berekin halaber.

Beste mehatxu handi bat krisia da. Gorrei eskaintzen zaizkien zerbitzu gehienak (hezkuntzako laguntza, interpretaritza zerbitzua, lan arloko aholkularitza...) diru

publikoaren bidez finantzatzen dira. Murrizketek dagoeneko izan dute eragina diru-laguntza horietan, eta egoerak okerrera eginez gero, ondorioak latzagoak izango dira: interpretaritza zerbitzua eskastuko da, eskoletako laguntza murriztagoa izango da... Horrez gainera, langabezia tasak gora eginez gero, kontuan hartuta gorren langabezia tasak altuagoak izan ohi direla, gorrek ere lan egiteko aukera gutxiago izango dituzte, eta horrek zuzenean eragingo du haien bizi kalitatean.

Ezin esan, bestalde, aukeren atalean azaldutako ikuspegi aldaketa erabatekoa izan denik. Badira egun osasun eta hezkuntza alorreko profesional batzuk gorreria ikuspegi patologikotik soilik ikusten dutenak. Kasu horietan gomendioa izan ohi da umeari inplantea jartzea eta entzulea balitz bezala tratatzea: zeinu hizkuntza ez erakustea, beste ume gor batzuk ezagutzen ez uztea eta umea entzuleen artean “integratzea”. Esperientziak erakutsi du, baina, gorreria ikuspegi patologikotik soilik landuz gero, gorren garapenean oztopoak jartzen eta euren eskubideak murrizten direla.

Mehatxuekin amaitzeko, irisgarritasun eskasaren gaia azaldu beharra daukat. Egungo gizartean informazio trukea ikaragarria da, eta gorrek informazio horren zati handi baterako sarbiderik ez dute: mezua soinu bidez soilik ematen denean, jendeak hitz egitean argi nahikorik ez dagoenean, interprete zerbitzurik bermatzen ez denean... Informazio hori eskura ez izatea gorrek gizartean parte hartu ahal izateko oztopo handia da.

Indarguneak azaltzera joko dut jarraian. Lehenik esango nuke bai gorren komunitateek, bai zeinu hizkuntzek ez dutela desagertzeko arriskurik. Izan ere, milatik bost jaioberri entzumen alorreko arazoren batekin jaiotzen da; estatistikak hor daude, eta zientziak gorreria desagertzea lortzen ez duen bitartean, gorrek jaiotzen jarraituko dute. Gorrek komunikatzeko beharra izango dute aurrerantzean ere eta zeinu hizkuntza erabiltzen jarraituko dute, haientzat naturalena eta erosoena hori baita. Horregatik diot desagertzeko arriskurik ez dutela.

Beste alde batetik, hezkuntza arloan emandako hobekuntzak ere azaldu beharrekoak dira. Azken urteetan zeinu hizkuntza Gipuzkako ikasgeletan sartu da eta horrek eragin nabarmena izan du gorren hezkuntzaren kalitatean. Beste alde batetik, gorrei euren

kultura eta historia transmititzen saiatzen dira hezkuntzaren bidetik, eta hori ere onuragarria izan da gor belaunaldi berrientzat.

Gor izatearen harrotasuna, gainera, gero eta presenteago dago gorren komunitatean. Ikuspegi aldaketa hori ematen ari da edo eman da hein handi batean, eta gorreria ikuspegi patologiko batetik soilik ikustetik ikuspegi soziokulturala ere aintzat hartzera pasa da komunitatea oro har. Gure inguruan XX. mende bukaeran hasi zen aldaketa hori ematen. Hori baino lehen, gorren komunitateak ez zuen gor izatea harrotasunez bizi. Ikuspegi aldaketa hori oso garrantzitsua da gorren autoestimurako eta komunitate gisa gizartea eraldatzeko ezinbesteko indarra ematen die. Bestetik, belaunaldi berriek jaso duten hezkuntza elebidunak harrotasun hori bultzatzen lagundu du.

Ezgaitasun bat duen komunitatea diren aldetik, lana lortzeko garaian arazo gehiago izaten dituztela aipatu dugu. Gipuzkoan, enpresa babestuen sare indartsu bat dugu eta gor askori lana ematen die. Egia da gor asko ez daudela konforme horrelako enpresetan lan egitearekin, eta entzuleen gaitasun berak dituztenez entzuleek bezalako lanpostuak izatea eskatzen dutela. Ez dut ukatuko gorrek entzuleek bezalako lanpostuak izateko duten eskubidea; hori lortzen den egunean benetako integrazioaz hitz egiten arituko gara. Hala ere, egun bizi dugun errealitatean enpresa horiek lan egiteko aukera eskaintzen diete gorrei, eta modu horretan bizitza kalitate estandarra eduki dezakete, euren behar ekonomikoak ase ahal dituztelako.

Azken blokearekin, ahulguneekin, hasteko, komunitatearen txikitasuna aipatuko nuke. Gorrak gutxi izaten dira entzuleen komunitate barruan eta txikitasun horrek hainbat gauza lortzeko mugak dakartza, izan ere, ez dute nahikoa indar erabakiguneetan egoteko. Horrenbestez, entzuleak dira euren bizitzako alor askori (hezkuntza sistema, irisgarritasuna...) buruz erabakiak hartzen dituztenak.

4.3. atalean aipatu dugunez, zeinu hizkuntzen transmisioa ahula da halaberrez. Umeen % 95ek ez dute gurasoengandik ikasten zeinu hizkuntza. Belaunaldiz belaunaldi transmititzen den hizkuntza ondarea galdu egiten da maila handi batean transmisio ahul horren eraginez. Bestalde, kode idatzirik ez izateak ere eragina du ondare horren transmisioan. Ahozko hizkuntzak idatziz jasotzen ditugu, eta literaturan gure

hizkuntzen ondarea pilatuz goaz. Zeinu hizkuntza ez dira gaur-gaurkoz idazten, eta beraz, ez dute ondarea pilatzen joateko entzuleok dugun baliabide hori.

Bestetik, eta mehatxuetan azaldutako profesional batzuen jokaerekin lotuta, esan nahiko nuke ume gorrek jasoko duten hezkuntza ereduaren gainean erabakitzeke ahalmen osoa gurasoek izatea ahulgune handia dela. Ume gor baten gurasoek, norbaitek hala aholkatu dielako, erabakitzen badute haien umeak ez duela zeinu hizkuntza ikasiko eta ez duela beste gorrekin harremanik izango, ume horren garapena kaltetzen ariko dira nabarmen, eta baliteke itzulera gabeko ondorioak eragitea umearengan: gizarteratzeko arazoak, hizkuntza alorreko gabeziak...

Beste alde batetik, egun gorrei eskaintzen zaien interpretaritza zerbitzua ez da nahikoa dituzten behar guztiei aurre egiteko. Kontuan hartuta zerbitzu hori askotan ezinbestekoa dela irisgarritasuna bermatu ahal izateko, hobetu beharreko ahulgune baten aurrean gaude.

Aukeren alorrean Espainiako eta Kataluniako zeinu hizkuntzek 2007an lortutako ofizialtasuna azaldu dut. Legea hor dago bai, baina lege batek ez du askorako balio hura garatzeko mekanismoak martxan jartzen ez badira. Lan handia dago egiteko alor horretan, orain hasi baitira Legea garatzen. Bestalde, Eusko Jaurlaritzak ez du oraindik LSEa hizkuntza ofizial izendatu EAEn.

Aipatu beharreko beste kontua bat gorren eta gurasoen elkarleen arteko harreman txarrak dira. Gatazka horiek ez diote inolako mesederik egiten gorren komunitateari, izan ere, indarrak banatzea dakar. Gorren eskubideak bete daitezten indarrak elkartuz gero, aurrera egiteko aukera gehiago izango lukete. Puntu honetan esan beharra dago Gipuzkoan horren salbuespena bizi dugula eta Aransgi-k eta Euskal Gorrak-ek harremana badutela. Poztekoa da oso.

8. ZEINU HIZKUNTZAK ETA AHOZKO HIZKUNTZA GUTXITUAK

Atal honetan zeinu hizkuntzak eta ahozko hizkuntza gutxituak konparatu nahi izan ditut. Zeinu hizkuntzak hizkuntza gutxituak dira, baina zenbateraino pareka daitezke ahozko hizkuntza gutxituekin? Atal honen helburua da aztertzea zenbateraino diren berdin eta desberdin zeinu hizkuntzak eta ahozko hizkuntza gutxituak. Euskararen inguruko erreferentzia batzuk ere sartu ditut bidenabar.

8.1. BERDINTASUNAK

Zeinu hizkuntzak urteetan gutxietsiak izan dira, 1880ko Milango Kongresua egin zenetik XX. mende bukaerara arte baztertuta egon ziren hezkuntza sisteman eta gizartean oro har. Gorrek eurek ere ukapen jarrerak izan dituzte maiz eta hitz egitea zeinuak erabiltzearen gainera goraipatu izan dute. 1960an William C. Stokoe hizkuntzalariak *Sign Language Structure* lana argitaratu zuenean egoerari buelta ematen hasi ziren; gor izatea harrotasunez bizitzeko bidearen lehen urratsak izan ziren haiek. Mugimendu hura Estatu Batuetan hasi eta denborarekin Europara ere hedatu zen, batik bat, Europa iparraldeko herrialdeetara. Espainian 90eko hamarkadan hasi zen ikuspegi berri hau lekua egiten, eta horrenbestez, esan daiteke duela gutxi arte gor izatea ez dela harrotasunez bizi izan.

Gauza antzekoa gertatzen da ahozko hizkuntza gutxituekin ere: baztertuak izan dira urte askoan eta hiztunek ez dute harrotasunez bizi izan komunitate horren kide izatea. Euskararen kasura etorrita, Nafarroako Erreinua konkistatu zutenetik (1512) urte luzez zokoratuta egon da gure hizkuntza: funtzio ugari kenduta, gutxietsita, debekatuta, garapena oztopatuta... Espainiako Gerra Zibilaren (1936-1939) aurretik eta Diktadura garaian (1939-1975) euskararen aldeko ekimenak egon baziren ere, benetako bultzada

1975. urtearen ondotik etorriko zen. Hasiara horretan, euskararen aldeko mugimendu hori herri ekimenetik etorri zen.

Hizkuntza gutxituak diglosi egoeran bizi dira, hizkuntza menderatzaileak funtzio ugari bereganaturik dituela. Funtzio horiek, gainera, hizkuntzari prestigioa ematen dioten funtzioak izan ohi dira: zientzia eta politikarako hizkuntza, goi mailako gizarte taldeen hizkuntza, hezkuntzarako hizkuntza... Horren ondorioz, hizkuntza gutxituetako hiztunek pentsatzen dute edo pentsatu izan dute euren hizkuntza ez dela menderatzailea bezain egokia alor horietarako. Hori gertatu izan da euskararekin ere, mendetako zapalkuntzaren ondoren, euskal hiztunak denbora luzez euren hizkuntza hitz egiteaz lotsatu izan dira.

Zeinu hizkuntzak ere diglosi egoera batean bizi dira, zeinu hizkuntzek ez dute inolako prestigiorik izan eta gorrek eurek ere ahozko hizkuntzen alde egin izan dute. Dena den, nire ustez, zeinu hizkuntzen egoera hizkuntza gutxituena baino okerragoa zen duela gutxi arte, izan ere, hizkuntza izaera ere ez zitzaien aitortzen.

Esan daiteke bai zeinu hizkuntzen bai ahozko hizkuntza gutxituen erabiltzaileek, euren hizkuntzen urte luzetako bazterketaren ondoren, harrotasun ezak eraginda, autogorroto sentimendu bat garatu zutela euren kulturarekiko eta hizkuntzarekiko. Behean *Soziolinguistika eskuliburuan* gai honi buruz jasotako aipu bat:

“...katalanek eta okzitanoek frogatu duten moduan, **autogorroto** fenomenoak hizkuntza gutxituaren hiztuna bere hizkuntza hizkuntza menderatzailea baino okerrago baloratzera bultzatzen du.” (Beacco in Hainbat, 2010)

Hala ere, gaur egun, zientziaren alorrean hizkuntza guztiek, bai ahozkoek bai zeinu bidezkoek, ezaugarri nagusi berberak dituztela frogatu da, beraz, ez dago hizkuntzarik bata bestea baino hoberik, egokiagorik, moldagarriagorik... Horrek prestigioa ekarri die egoera gutxituan zeuden hizkuntzei.

Gipuzkoara etorrita, egun euskaldunon komunitateak eta gorren komunitateak autogorroto hori alde batera utzi oro har eta euren hizkuntza eta komunitate nortasuna harrotasunez bizi dutela esan ahal dugu.

Beste alde batetik, edozein hizkuntzarentzat, eta gutxituentzat bereziki, lege babes oso garrantzitsua da. Egoera gutxituan dagoen hizkuntza bati, lege babesik eman ezan, nekez lortuko du garatzea, nekez lortuko du hizkuntza menderatzailearen morrontzatik irtetea. Lege babes hori maila desberdinetakoa izan daiteke. Euskal Herrian orain arte egin dugun normalizazio ibilbideak argi erakutsi digu hizkuntza gutxituari ofizialtasuna emateak garrantzi handia duela hizkuntza garatu eta normalizatzeko bidean. Euskal Herrian euskara ofiziala den eremuetan askoz ere aurrerapauso gehiago eman dira normalizazioaren alorrean; eta euskarak ofizialtasunik ez duen lekuetan zenbait kasutan atzerapausoak ere egin dira kasuan kasuko gobernuaren arabera. Euskal Autonomia Erkidegoko eta Iparraldeko kasuak ikusiko ditugu labur jarraian.

EAEen bi lege ditugu euskararen izaera arautzeko: batetik, 1979ko Estatutuak; eta bestetik, 10/1982 Oinarrizko Legea, euskararen erabilera arautzekoa. Lege horiek euskarari ofizialtasun osoa aitortzen diote EAEko lurralde osoan, gaztelaniarekin batera. Horrek esan nahi du hezkuntza euskaraz jasotzen aukera bermatu beharra dagoela, herritarrek administrazioarekin harremanak euskaraz izan ditzaketela, eta administrazioa derrigortuta dagoela herritarrengana bi hizkuntza ofizialetan zuzentzera. Errealitateak erakusten du horiek guztiak ez direla erabat betetzen, baina eskubide diren aldetik eskatzeko aukera daukagu eta Jaurilaritza osatu zenetik gaur egunera arte hobekuntza nabarmenak izan dira.

Iparraldean, aldiz, euskarak ez du inolako aintzatespenik, ez eta inolako lege babesik ere. 2008an Frantziako Konstituzioan eskualdeko hizkuntzak herrialdearen ondare zirela zioen esaldi bat gehitu bazuten ere, horrek ez die euskaldunei inolako hizkuntza eskubiderik onartu. Egoera hori izanda, Iparraldeko euskaldunen hizkuntza eskubideak etengabe eta sistematikoki urratzen dira bizitzako alor guztietan: hezkuntzan, justizian, administrazioarekin dituzten harremanetan, hedabideetan... Oztopo horiek guztiek eragina izan dute euskararen osasunean eta egun kezagarria da oso Iparraldean euskarak bizi duen atzerakada: hiztun kopurua jaisten ari da, gazteek ez diote hizkuntzari eusten, transmisioa ez dago segurtatuta...

Ofizialtasuna tresna oso baliagarria da hizkuntza baten normalizazioan aurrera egiteko, izan ere, ofizialtasun horrek eskatzeko eskubidea sortzen du. Lurralde batean hizkuntza bat ofiziala bada eta zuk hizkuntza hori erabiltzeko edo informazioa hizkuntza horretan erabiltzeko aukerarik ez baduzu, zure hizkuntza eskubideak urratuak izaten ari dira eta eskubide horiek errespetatu daitezela eska dezakezu. Aitzitik, lurralde batean hizkuntza bat ofiziala ez bada, ez duzu eskatzeko eskubiderik, hizkuntza horietako hiztunen hizkuntza eskubideak ez daude aitorturik, eta beraz, legalki haien hizkuntza eskubideak ez dira urratuak izan.

Espainian 2007an aitortu zitzaizkien Espainiako eta Kataluniako zeinu hizkuntzei ofizialtasuna, eta horrek bide asko zabaldu zituen (7.10. puntu sakondu dut gai horretan). EAEko eta Nafarroako gobernuek ez dute horrelakorik egin oraindik. Iparraldeko egoeraren berririk ez dut. Ikusita ofizialtasunak zer garrantzi duen komeniko litzateke pauso hori ematea.

Lege babes hori ez izatea botere guneetatik at egotearekin dago zuzenean loturik. Hizkuntza gutxituak normalean botere guneetatik at egoten dira urte luzez eta egoera horrek eragiten du hizkuntza gutxitu bihurtzea. Hori gertatu izan da Euskal Herrian, baina baita Irlandan, Hego Amerikako herrialde indigenetan eta abarretan ere, azken batean, konkistatutako edo kolonizatutako herrialde guztietan.

Lege babes hori gauzatzeko, boterean daudenek borondate politikoa izan behar dute. Eusko Jaurlaritzak, batzuentzat nahikoa izan ez bada ere, izan du borondate politikoa euskara normalizatzeko eta besteak beste normalizazio plangintzak jarri ditu martxan hainbat arlotan: hezkuntzan, justizian, Osakidetzan... Euskaldun nazionalistak boterera heldu zirenean euren hizkuntza eta kultura defendatzeko arauak eta legeak egin zituzten.

Zeinu hizkuntzako hiztunak ere botere guneetatik at egon izan dira eta daude gaur egun. Komunitate txikia izanda, ez dute boto nahikorik boterera heltzeko. Horrek noski eragina du zeinu hizkuntzaren normalizazioan, zeinu hizkuntzak babestu eta sustatzeko tresna baliagarri hori, lege babesarena, baliatzeko zailtasun handiagoak dituztelako. Azken batean, entzuleen esku gelditzen da zeinu hizkuntzaren normalizazioa.

Botere guneetatik at egote horrek daukan beste ondorio garrantzitsu bat hezkuntzarekin dago lotuta. Ume eta gazteek hezkuntza zein hizkuntzatan jasoko duten erabakigarria da hizkuntza baten garapenerako eta biziraupenerako. Eusko Jaurlaritzak egin zuen lehenetariko lan bat euskara ereduaren sistema ezartzea izan zen, eta horren bidez, hala nahi zuten gurasoen umeei hezkuntza osoa euskaraz eman beharko zitzaizkien. Ildo beretik, eta gorra botere guneetatik at egon direnez, zeinu hizkuntza bazterturik egon da gorren hezkuntzan eta horrek hezkuntzaren garapenean hutsune nabarmenak eragin ditu, eta gorrek jasotako hezkuntzaren kalitatea ere eskasa izatea ekarri du.

Goian azaldu dut zeinu hizkuntzak eta ahozko hizkuntza gutxituak urte luzez baztertuta egondako hizkuntzak direla, eta bazterketa horren beste ondorio bat, garapen eskasa da. Debekatuta eta zokoratuta egon dira, eta zientziarako, hizkuntza jasorako, hezkuntzarako eta abarrerako balio ez zutela pentsatzen zenez, ez da horietaz aritzeko terminologia eta aldaerarik sortu.

Hizkuntza guztiak dira gai edozein kontzeptu adierazteko, horretarako nahiko baliabide badauzkate-eta. Hizkuntza modernizatzeko lan mardul hori (dagoen terminologia batzea eta berria sortzea) ezinbesteko da zalantzarik gabe, hizkuntza bizitzako arlo guztietarako gaitu nahi baldin bada.

Azkenik, aipatu nahiko nuke, Euskal Herrira etorrira, herri mugimenduak zein garrantzi izan duten bai zeinu hizkuntzen aldeko aldarrikapenean bai ahozko hizkuntza gutxituenean. Zeinuen hizkuntzen kasuan, hasiera batean, ume gorren gurasoen elkarrekin sortu ziren, eta horiek izan ziren hasieran motorrak. Euskararen kasuan, aipatu dut gorago, Diktaduraren ondoren euskararen aldeko herri mugimendua handia izan zela.

8.2. DESBERDINTASUNAK

Zeinu hizkuntzen eta ahozko hizkuntza gutxituen artean desberdintasun nabarmenak ere badaude. Hasteko, elebitasunaren beraren gaia dago. Entzuleak ahozko hizkuntza bat baino gehiago ikasteko gai gara, eta horrenbestez, elebidun edo eleanitz izan gaitzke. Gorrak ere izan daitezke elebidun edo eleanitz, baina ez ahozko hizkuntzekin. Hau da, gorrek zeinu hizkuntza bat baino gehiago jakin ditzakete, baino ahozko hizkuntzekin, elebitasun edo eleanitzasun hori ez da erreal. Egia da, dena den, gorrek duten galeraren arabera eta egungo teknologia berriekin lortzen duten entzuteko gaitasunaren arabera, hobeto edo txarrago moldatzen direla ahozko hizkuntzekin.

Hala ere, kasu gehien-gehienetan, gaitasun funtzionala ez da bera izaten: zarata asko baldin badago, ezin badute hizlaria ondo ikusi, hizlariak baldar hitz egiten badu... gorrek ez dute informazio hori entzuleek bezala jasotzen. Kontuan hartu beharra dago, 7.3. atalean azaldu dugun bezala, ezpainak irakurtzeko gaitasuna mugatua dela. Horrenbestez, gorren elebitasuna, zeinu hizkuntza eta ahozko hizkuntza jakiteaz ari garela, ez da erreal.

Beste alde batetik, hizkuntza aukeratzearen gaia dago. Hizkuntza gutxitu bat hitz egiten duten hiztunak hizkuntza menperatzailea ere hitz egiten dute kasu askotan. Hori da, adibidez, euskararen egoera gaur egun: euskaldun guztiok dakigu gaztelaniaz edo frantsesez. Horrek eragiten du euskara erabiltzen dugun bakoitzean aukera bat egin behar izatea. Gaztelaniaz edo frantsesez hitz egin dezakegu, gainera badakigu hizkuntza horietan eginez gero, beti ulertuko gaituztela, euskararekin ez bezala. Horrenbestez, euskaraz egitea erabakitzen dugun bakoitzean aukera bat egiten dugu.

Gorren kasua desberdina da, haien benetako hizkuntza zeinu hizkuntza delako. Ahozko hizkuntza entzuleekin komunikatzeko erabiltzen dute batik bat; gorren artean zeinu hizkuntza erabiltzen dute, ahozko hizkuntza arrotza baita haientzat eta kasu gehienetan askoz hobeto moldatzen direlako zeinuen bidez. Gorren komunitatea, gainera, oso txikia da eta denek ezagutzen dute elkar, beraz, badakite norekin erabili ahal duten zeinu hizkuntza eta norekin ez. Beste alde batetik, zeinu hizkuntza badakiten entzuleak badauden arren, gorrez aparte oso jende gutxi daki zeinu

hizkuntza. Honek guztiak bi ondorio dauzka. Batetik, gorrek gorrekin komunikatzean ez dute aukera erreal bat egiten, haientzat hizkuntza naturala zeinu bidezkoa delako. Bestetik, ezagutzen ez duten jendearekin (gor gehien-gehienak ezagutzen dituzte) zeinu hizkuntza erabili ahal izateko aukera oso-oso txikiak dira, eta horren ondorioz, suposatzea da ahozkoa erabiliko dutela. Beraz, ezin esan genezake gorrek aukera bat egiten dutenik zeinu hizkuntza erabiltzen dutenean.

Arnasguneei dagokienez, desberdin jokutzen dute zeinu hizkuntzek eta ahozko hizkuntza gutxituek. Azken horiek normalean eremu geografiko jakinetan pilatzen dira. Euskararen ordezkapen prozesuri begiratuz gero, argia da hori. Gaztelania eta frantsesa euskarari lekua jaten joan ahala, arnasguneak itsasoari gertuen zeuden lurraldeetan kokatu ziren.



(Iturria: <http://www.euskara.euskadi.net>)

Zeinu hizkuntzekin, aldiz, ez da gauza bera gertatzen. Urtero mila umetik bat gorrieria sakonarekin jaiotzen da. Baina ume horiek entzuleez inguraturik hazten dira. Gero, eskolan eta elkarteetan beste gor batzuk ezagutuko dituzte. Ahozko hizkuntzak batik batik belaunaldiz belaunaldi transmititzen dira, gurasoek seme alabei erakusten diete; zeinu hizkuntzak, berriz, ez dira horrela transmititzen, ume gor gehienak inguru entzule batean jaio eta hazten direlako. Ume gorrek, eskolan elkarteetan ikasten dute zeinu hizkuntza. Horren ondorioz, zeinu hizkuntzekin ez da pilaketa geografiko hori gertatzen.

Zeinu hizkuntzako hitzunen arnasguneak elkarteak direla esan dezakegu. Gorrek bertan ezagutzen dute elkar, bertan egiten dituzte lagunak eta harreman sareak. Konparaketa bat egin nahi izatera, eremu erdaldunetan euskaldunek bizi duten egoerarekin pareka dezakegu gorren egoera, izan ere, euskaldunen dentsitate gutxiko

herri eta hirietan gune zehatzak izan ohi dira euskararen arnagune: euskara elkarteak, ikastetxeak, taberna euskaldunak...

Arnaguneei dagokienez, bada beste fenomeno bereizgarri bat ahozko hizkuntza gutxituen eta zeinu hizkuntzen artean. Ahozko hizkuntza gutxituen arnaguneak herriak izan ohi dira. Lehen esan bezala, hizkuntza gutxituak botere guneetatik at egoten dira, eta gune horiek hirietan egoten dira. Horren ondorioz, horrelako hizkuntzen arnaguneak herri eta herrixkak izan ohi dira.

Zeinu hizkuntzen kasua alderantzizkoa da: zeinu hizkuntzek hirietan dute osasun onena. Izan ere, hirietan herrietan baino gor gehiago daude, eta harremanetarako aukera gehiago dituzte. Herrietako gorrek ez dute hain eskura izaten beste gor batzuekin aurrez aurre egotea. Hirietan gorrek duten aukera horrek erabiltzen duten hizkuntza aberatsago bihurtu du.

Azkenik, esango nuke bizirauteko gaitasun desberdina dutela ahozko hizkuntza gutxituek eta zeinu hizkuntzek. Ahozko hizkuntza gutxituen kasuan, ordezkapen prozesua aurrera joan ahala, hizkuntza gutxituak funtzio gutxiago izango ditu eta desagertzeko arriskua handiagoa izango da. UNESCOren arabera, egun hitz egiten 6000 hizkuntzen erdia desagertu egingo dira mende amaieran, ezer egiten ez bada. Normalizazio prozesuen bidez, hizkuntza gutxituari funtzioak berreskuratzeko moduak ematen zaizkio, eta horren ondorioz, desagertzeko arrisku hori txikitu egiten da⁴⁴.

Zeinu hizkuntzen abantaila dute alde horretatik. Urte luzetako bazterketa pairatu badute ere, gorrek zeinu hizkuntzak erabiltzen jarraitu dute, ezkutuan bada ere. Azken batean, ahozko hizkuntzak arrotzak dira haientzat, eta goian esan bezala, zeinu hizkuntza erabiltzen dutenean ez dute benetako aukera bat egiten. Aukeraketa egin behar ez izate horrek zeinu hizkuntzen biziraupena nolabait ziurtatu egiten du. Gorrek elkarren arteko harremana izaten jarraitzen duten heinean, zeinu hizkuntzak hor egongo dira, ez dira desagertuko, ahozko hizkuntzek behintzat ez dituzte desagerraraziko.

⁴⁴ Iturria: <http://www.unesco.org/new/es/culture/themes/endangered-languages/>

Egia da, beste alde batetik, zeinu hizkuntzen hiztunentzat askoz ere zailagoa izango dela zeinu hizkuntzak funtzio gehiago hartzea. Gorrak gutxi izanda eta erabakiguneetatik at egonda, nekez lortuko dute bide horretan aurrera egitea.

9. BIBLIOGRAFIA

OHIKO BIBLIOGRAFIA

- Anaya (1986). *Diccionario de lingüística*. Madril. Anaya
- BILBAO, Paul; KASARES, Paula (2008) 3.4. *Hizkuntza eskubideen eta lege estatusaren egoera Euskal Herrian*. HIZNET, Hizkuntza Plangintza Unibertsitateko Espezialista. Donostia-San Sebastián. Euskal Herriko Unibertsitatea.
- Espainiako Diputatuen Kongresuak onartua. *Herritarrek Justiziaren aurrean dituzten Eskubideen Gutuna (2002)*
- Euskal Gorrak. Pertsona Gorren Elkarteen Euskal Federazioa (2010). *2010 memoria*.
- Euskal Gorrak. Pertsona Gorren Elkarteen Euskal Federazioa (2012). *2012 memoria*.
- Eusko Jaurlearitzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila (2013). *Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza*
- Hainbat egile (2010). *Soziolinguistika eskuliburua*. Andoain. Soziolinguistika Klusterra.
- LEMASTER, Barbara; MONAGRAHN, Leila (2006). *Variation in Sign Languages*, in Duranti, A. (ed.) *A Companion to Linguistic Anthropology*. Malden. Blackwell, 141-154.
- PADDEN, Carol (2001). *Deaf*, in Duranti, A. (ed.) *Key Terms in Language and Culture*. Malden. Blackwell, 52-55.
- PINKER, Steve (2001). *El Instinto del Lenguaje*. Madril. Alianza
- RODRÍGUEZ, María Ángeles (1992). *Lenguaje de signos*. Madril. Confederación Nacional de Sordos de España eta ONCE fundazioa.
- SACKS, Oliver (1991). *Veo una voz*. Madril. Anaya
- SOTILLO, María (1993:89-155). *Sistemans Alternativos de Comunicación*. Madril. Trotta. 89-155
- XAMAR (2006). *Euskara Jendea: gure hizkuntzaren historia, gure historiaren hizkuntza*. Iruña. Pamiela

INTERNET-EKO BALIABIDEAK

- Aransgi (2013). Aurkezpena. Iturria: <http://www.aransgi.org/eu/>
- CNSE. Confederación Estatal de Personas Sordas (2013). Ámbitos de actuación. Iturria: <http://www.cnse.es/actuacion/asociativo.html>
- CNSE. Confederación Estatal de Personas Sordas (2013). Ámbitos de actuación. Iturria: <http://www.cnse.es/actuacion/cultura.html>
- CNSE. Confederación Estatal de Personas Sordas (2013). Comunidad y Cultura Sorda. Iturria: http://www.cnse.es/lengua_signos/comunidad_cult.html
- CNSE. Confederación Estatal de Personas Sordas (2013). Lengua de Signos. Iturria: http://www.cnse.es/lengua_signos/reco_sign_espa.html
- Dime a los ojos (2013). Alfabeto dactilológico. Iturria: <http://dimealosojos.blogspot.com.es/2011/02/alfabeto-dactilologico.html>
- Euskal Gorrak. Pertsona Gorren Elkarteen Euskal Federazioa (2013). Zerbitzuak. Interpretateak. Iturria: <http://www.euskal-gorrek.org/interpretesEu.html>
- FIAPAS. Confederación Española de Familias de Personas Sordas. Iturria: <http://www.fiapas.es/FIAPAS/reddeatencion.html>
- Geografia>Euskara (2013). Iturria: http://www.euskara.euskadi.net/r59-luredir/es/contenidos/articulo/c0418/eu_d0418001/0418001.html
- Gureak taldea (2013). Gureak Datuak. Iturria: <http://www.grupogureak.com/eu/buruz/gureak-datuak.aspx>
- IES Botikazar institutua BHI (2013). Iturria: <http://www.botikazar.net/>
- Katealegaia (2013). Katealegaiaren baliabideak. Iturria: http://www.grupokl.com/02eusk/04recur_ca.html
- Manos k Rien (2013). Asociación Artístico cultural Manos k Rien. Iturria: <http://manoskrien.blogspot.com.es/p/junta-d.html>
- Manos k Rien (2013). II. Festival de Arte en Signos 2013. Iturria: http://manoskrien.blogspot.com.es/p/festival_24.html
- LARA, Pilar; MARTÍNEZ, Francisco; VEGA, Miguel (2007). Lengua de signos española. Perspectiva CEP: Revista de los centros de profesorado. Lengua de signos. Iturria: http://www.juntadeandalucia.es/educacion/portal/com/bin/Contenidos/IEFP/Publicaciones/PERSPECTIVA CEP/1209369534792_10_colabora_leng_sig.pdf

- ROLAN, Travis (2001). International Sign Language. Gestuno. Iturria: <http://www.lifeprint.com/asl101/pages-layout/gestuno.htm>
- Sematos (2013). Iturria: www.sematos.eu
- Spreadthesign. (2013). Iturria: <http://www.spreadthesign.com>
- UNESCO (2013). Lenguas en peligro. Iturria: <http://www.unesco.org/new/es/culture/themes/endangered-languages/>
- Vialnet. Asociación Andaluza sobre Discapacidad. (2013) Programas televisivos para personas sordas. Iturria: <http://www.valinet.org/apartado.php?idApartado=44>
- Wikipedia (2013). Algonquino-vasco. Iturria: <http://es.wikipedia.org/wiki/Algonquino-vasco>
- Wikipedia (2013) American Sign Language. Iturria: http://en.wikipedia.org/wiki/File:ASL_map_%28world%29.png
- Wikipedia (2013). Auslan. Iturria: <http://en.wikipedia.org/wiki/Auslan>
- Wikipedia (2013) Edward Klima. Iturria: http://en.wikipedia.org/wiki/Edward_Klima
- Wikipedia (2013) International Sign. Iturria: http://en.wikipedia.org/wiki/International_Sign
- Wikipedia (2013) Lengua natural. Iturria: http://es.wikipedia.org/wiki/Lengua_natural
